



“Kebabeko bezero gehienak gazteak dira”

2015eko ekainaren 19a, 445 zenbakia X. urtea Andoainen eta Urnietan doan banatzen da

ALTAF MOHAMED, ELKARRIZKETA

Ana Carrere Andoaingo alkate izendatu zuten, ezusteko bozketan

Andoainen alkatetza Maider Lainez sozialistarentzat izango zela egintzat ematen zenean, ezustekoa izan zen hautagaien bozketan.

Batzarraldi aretoan ezustekoa handia izan zen, bertan izan zirenek ahaztuko ez dutena. EH Bilduk alkatetza galdutzat ematen zuen, horixe adierazten zieten berataratzen ziren kazetari eta herri-kideei. Aginte-makila sozialisten eskuetara igaroko zela zirudienean, bozketan Maider Lainezek ez zituen jeltzaleen eta sozialisten boto guztiak lortu. Espero ez zen boto zuri bat izan zen bederatziboto horien artean, Ana Carrereren bigarren agintaldia ahalbi-



Ana Carrerrek PSE-EEko Daniel Garciaren eskutik jaso zuen aginte-makila.

detu zuena. Etsipena nagusitu zen orduan jarraitzaile sozialisten artean eta, aldiz, poza handia zen Bilduko kideen artean.

ALKATE IZENDATZEKO SISTEMA Maiatzaren 24ko Udal hauteskundeetan EH Bilduk irabazi

zuen, baina gehiengo osoa eskuratu gabe. Larunbateko kargu-hartze ekitaldian lehenik eta behin hautagaiak aurkeztu behar ziren, eta ondoren bozketari hasiera eman. 17 zinegotzietatik Ana Carrere eta Maider Lainez aurkeztu ziren

Espero ez zen boto zuri bat medio, Ana Carrerrek bigarren agintaldiari ekin dio

alkatetzarako, jeltzaleen hautagai Marijose Izagirrek berea erretiratu zuelako.

Lehen bozketaren horretan alkate izan nahi zuen hautagaiak 17 botoetatik 9 lortu behar zituen. Eta ez zen hori gertatu. Bozketaren emaitza honakoa izan zen:

- Maider Lainez 8 boto.
- Ana Carrere 6 boto.
- Jorge Mourinho boto 1.
- Zuriak 2.

Gehiengo osoa inork lortu ez zuenez, hauteskundeetan boto gehien eskuratu zuenak hartu zuen aginte-makila: Ana Carrerrek, alegia. Zenbaketa emozioz beterikoa izan zen.

[3.ORRIALDEAN JARRAITZEN DU]

Hogar Extremeño elkartearen Kultur astea



Bertsolari gazteak.

Ostiralean Hogar Extremeñoren kultur asteari amaiera emateko jaialdia antolatu zuten Basteron. Dantzari gazte eta helduek, eta bertsolariek ez ohiko ikuskizuna eskaini zuten.

[ANDOAIN, 8.ORRIALDEA]

Baserria barrutik ezagutzeko ekimena

ENBA nekazal sindikatuaren ekimenez, uztailaren 3an eta 4an baserri giroa gertutik ezagutzeko aukera izango da. Aukeran 16 baserri dau- de, tartean Urnietako Adarrazpi eta Eula baserriak.

[ANDOAIN, 6.ORRIALDEA]

Pala motzeko finala, ostiralean



Iradi andoaindarra.

Mikel Pagolak emozioz beteriko hitzaldia eskaini zuen kargua hartzean

Kargu-hartze ekitaldira herriko elkarte ezberdinetako ordezkariak gonbidatu zituzten.

Mikel Pagola jeltzaleak gehiengo osoarekin ekin dio bere bigarren agintaldiari, hunkituta eta eskua zabalik duela adieraziz. Oposizioko bi alderdietako buruzagiek ere jokabide erakitzailea izango dutela adierazi zuten. Andoaingoarekin alderatuta, ospakizun modukoa izan zen Urnietako kargu-hartze ekitaldia. Adierazpenak egin eta gero, Txanbolin txistulari taldeko eta Egape nahiz Aurrera Gure Ametsa taldeetako dantzariak agurra eskaini zieten San Juan plazan.

Emozioak gainezka egin zion Mikel Pagolari, bere aita eta



Maribel Vaquero (EAJ-PNV), Miren Martiarena (EAJ-PNV), Dabid Rosco (EAJ-PNV), Ivan Haro (PSE-EE), Mikel Izagirre (EH Bildu), Consuelo Frutos (PSE-EE), Mikel Pagola (EAJ-PNV), Jorge Segurado (EAJ-PNV), Itziar Martiarena (EH Bildu), Juan Luis Goikoe-txea (EAJ-PNV), Maripi Sarasola (EAJ-PNV), Xabier Yurramendi (EH Bildu) eta Itziar Artola (EH Bildu).

Florentino Ugalde zein Josu Garmendia alderdikideak gogorra ekarri zituenean. Bere alderdikide eta gertukoak ere malko-

ari ezin eutsi izan ziren. Eskua zabalik aginduko duela iragarri zuen: “Lau urte hauetan egin izan dugun moduan Urnietako

Udalean kontsentsuak bilatzen jarraitzeko konpromisoa hartu nahi dugu”.

[URNETA, 2.ORRIALDEA]

URNIETA #M24

Udal hauteskundeak
Alderdi berriak

E13

Mikel Pagolak gehiengo osoarekin ekingo dio bere bigarren agintaldiari

Adineko mahaia osatu eta botoak zenbata, Mikel Izagirrek egin zuen iragarpena: “Mikel Pagola Tolosa alkate izendatuta geratzen da”. Berehala hasi zen txalo zaparrada, ikusleen aldetik eta Udal ordezkari guztien aldetik. Mikel Pagola eserlekutik altxa zen eta Udal idazkariaren eskerari erantzunez, zutik eta herriarren aurrean kargua zin egin zuen honako esaldia erabiliz: “Urnietako herriak 400 urte betetzen dituen honetan, Urnietaren eta urnietarren aginduz, gure arbasoak oroimenean eta herri ordezkariaren aurrean, ohore handiz nire agindua ongi betetzea zin egiten dut”. Esaldia amaituta jendea txaloka eta zutik jarri zen, idazkariak aginte-makila eman zion bitartean.

LEHEN HITZAK ALKATE MODURA

Makila herritarrei erakutsi eta gero, bere eserlekura itzuli zen alkate bezala lehen hitzak eskaintzeko: “Eskerrak emateko eguna da, hasteko Urnietako Udalean azken lau urteotan elkarlanean aritu garen hamahiru zinegotziei. Gobernu taldekoei bereziki, Maribel, Dabid, Miren eta Koldo, gertuen izan ditudanak izan zaretelako. Baina baita oposiziotik ere, EH Bilduko eta PSE-EEko zinegotziek herriaren alde egin duzuen lanagatik. Ongi etorriak, bestalde, datozen lau urteotan udalbatza berria osatuko duzuen gainontzeko hamabi zine-



Kargua hartuta, dantzariak agurra eskaini zieten alkate eta zinegotziei.

“Urnietaren eta urnietarren aginduz, gure arbasoak oroimenean eta herri ordezkariaren aurrean, ohore handiz nire agindua ongi betetzea zin egiten dut”
Mikel Pagola

gotziei ere. Horien artean aurpegi berriak daude eta beste batzuek ordezkari izatea zer den badakite. Eskerrak maiztaren 24an izandako Udal hauteskundeetan 1428 herritarrek eskaintako konfiantzagatik ere, eta era berean, beraiengandik jasotzen dugun erantzunkizunagatik. Aurrera begira, zuzentzen dudan lan

taldeak gogo biziz ekingo dio legegintzaldiari. Talde gazte bezain trebatua dugu, eta azken lau urte hauetan egin izan dugun moduan, Urnietako Udalean kontsentsuak bilatzen jarraitzeko konpromisoa hartu nahi dugu. Gure jardunean lortu behar dugun helburu nagusia Urnietaren alde jardutea da, Urnietarentzat eta urnietarrentzat onena denaren alde jokatu behar baitugu. Gardentasun osoz arituko gara, une oro urnietarrei informazioa eskainiko zaie eta herritarrei parte hartzeko dinamikak eskaintzen jarraituko dugu. Asotelehenetik aurrera erronka gogor eta motibagarri honi ekiteko indarrarekin eta gogo-

“Lau urte hauetan egin izan dugun moduan Urnietako Udalean kontsentsuak bilatzen jarraitzeko konpromisoa hartu nahi dugu”
Mikel Pagola

arekin gaude. Mila esker horretarako aukera eskaini diguzuen guztioi. Emandako konfiantzari hutsik ez egiten saiatuko gara”.

HITZ SENTITUAK SENIDEEI ETA BIALDERDIKIDEI

Amaitu aurretik gogoan izan zituen gertukoak, familia eta alderdikideak. Hunkituta, hi-

“Norberaren kontuak alde batera utziz, besteen alde lan egiteak dakartzan onurak baloratzen aitzak erakutsi zidala gogoan izan nahi dut”

Mikel Pagola

tzak trabatu zitzaizkion une batean baino gehiagotan: “Ezin ahaztu familia, gaurkoan emazteak, alabek eta nire amak ordezkatzan duten familia. Eskerrik asko zuengandik jasotako laguntza eta animo guztiagatik. Hauteskunde egunean Bitoriano nire aita hil zela 26 urte bete ziren. Gaurkoan eskerrak eman nahi dizkiot berari ere, norberaren kontuak alde batera utziz besteen alde lan egiteak dakartzan onurak baloratzen berak erakutsi zidalako”.

Gaixorik dagoen Florentino Ugalde eta udaberrian hil zen Josu Garmendia herriko EAJko lehendakaria aipagai izan zituena, kanpainan haien hutsunea sentitu zuela nabarmenduz, “alderdikideen laguntzari esker aurrera irtetea lortu dugu. Florentino, animo, segi egoskorra izaten gaixotasunari aurre egiteko. Eta zuri berri, Josu, zauden tokian egonda ere ziur nago hemendik bidaltzen dizugun besarkada iritsiko zaizula. Eskerrik asko guztioi eta gora Urnieta!”. Malkotan amaitu zuen alkateak. Txalo zaparradarekin erantzun zioten bertan zirenek.

Ixiar Martiarena, EH Bilduko hautagaia

“Eskerrak eman nahi dizkiegu gure alde bozka eman dutenei. Zorionak EAJri gehiengo osoa lortu duelako. Zorionak PSE-EEri ere”. Herritarren parte hartzea eta inplikazioa hizpide izan zituen, “ez da egun batetik bestera egiten den gauza. Heziketa kontua da, lanketa behar duena, herri anitzagoa eta aberatsagoa izatera eramango gaituena. Azken lau urteotan errespetuz lan egin dugu, denok landu dugu bizikidetzat. Kanpainan marra gorri

asko zapaldu dira gure ustez. Etorkizunean joko garbiagoa espero dugu. Eraikitzaile jokatu dugu, Langardakoa horren adibide da”. Datozen lau urteetan euren lana gobernu taldeari Udala herritarrena izan behar duela gogorarazi zuen. Neurrien artean, honakoak: “Parte hartzeari bideak ireki behar dizkiogu, gardentasuna aldarrikatu, herritar guztien ongizatea bilatu, murritzeta sozialei aurre egin eta erabakitze eskubidearen alde egin”.

Consuelo Frutos, PSE-EEko hautagaia

“Alderdi sozialistaren aldetik esker ona guregan konfiantza erakutsi duten urnietar guztiei. Gure esker ona ere alderdikide eta etxeko guztiei, hartutako lan guztiagatik. Ez dizuegu hutsik egingo. Argi dagoenez, oposizioan gaude, baina hala eta guztiz ere urnietar guztien onuraren alde lan egiten dela ziurtatuko dugu. Guk kanpainan landutako egitasmoen alde lan egingo dugu, egitasmo horiengan sinesten dugulako. Errealitatearen gainean

eraiki ditugu. Uneoro gure ideiak eta proposamenak defendatuko ditugu. Eta urnietarren beharrak asetzen dituzten gainerako proposamenak ere babestuko ditugu. Sekula ez interes partidistei erantzuten dietenak, edota herritarren beharretatik urruntzen direnak. Mikel Pagola jauna, gehiengo osoa baduzu ere, sozialisten proposamenak kontuan hartuko dituzula espero dut. Zorionak alkate jaunari eta zinegotzi zairen guztioi”.

E13**Udal hauteskundeak
Alderdi berriak****ANDOAIN #M24**

Ana Carrere alkate izendatu zuten, ezusteko bozketa eta gero

1. "Maider Lainez".
2. "Maider Lainez".
3. "Ana Carrere Zabala".
4. "Maider Lainez".
5. "Ana Carrere Zabala".
6. "Ana Carrere Zabala".
7. "Maider Lainez".
8. "Blanco".
9. "Ana Carrere Zabala".
10. "Maider Lainez".
11. "Jorge Mourinho".
12. "Blanco".

Ezustekoa hamabigarrenean iritsi zen, hura bai kanpaikada! Kontaketarekin jarraitu zuen 17 Udal hautetsien artean edade-tuena zen PSEko Daniel Garcia, baina dagoeneko bigarren zuri hori erabakiorra zen, alkate-tza Bilduri ziurtatzen ziona. Begiradak eta keinuak gurutzatzen hasi ziren, eta ikusleen artean zurrumurrua berehala iritsi zen.

13. "Maider Lainez".
14. "Maider Lainez".



Unanue, Rodriguez, Carrere, Zulueta, Mujika eta Alberro kargu-hartze ekitaldian.

15. "Ana Carrere Zabala".
16. "Maider Lainez".
17. "Ana Carrere Zabala".

Zenbaketa amaituta, Daniel

eseri egin zen eta Udal idazkariak zenbaketari ekin zion. Maider Lainezek 8 boto jaso zituen, Ana Carrerek 6, Irabaziko Mourinhok 1 eta zuriak 2.

Gehiengo osorako 9 boto inork lortu ez zituen, EH Bildukoek une horretan alkatetza eurentzat zela barneratu zuten. Idazkariak hitza hartu zuen or-

duan: "Beraz, Udal hautagaien artean legeak hala eskatzen duen gehiengo osoa (9 boto) inork lortu ez duenez, eta herrian hautagaitza bozkatuena 2112 botorekin EH Bildurena izan zenez, mahaiko lehendakari-zak Ana Carrereri dei egiten dio izendapena hartzen duen ala ez. Eta behin kargua hartu ondoren, alkate aldarrikatuko genuke". Eta, noski, Anak baiezkua erantzun zuen.

Bertan izan zenak ez du berehalakoan ahaztuko batzar aretoan gertatu zena. Are gutxiago Ana Carrerek eta bere koalizio-kideek. EH Bildukoek kanpo ikusi zuten euren burua, goizeko 09:30ak aldera jeltzaleen jakinarazpena jaso zutenean. Alderdiak hala erabakita, EAE mailako itunari eutsiko ziotela adierazi baitzieten.

Bozketa egiteke zegoen, ordea. Eta ezuste galanta hor iritsi zen. Hamabigarrenean iritsi zen kanpaikada. Hots horrek, kanpaikada horrek, abiada bizia hartu zuen eta berehala estatut mailako hedabide digitalen lehen lerroan agertu zen.

Txalo zaparrada entzun zen alkateak aginte-makila hartu eta berehala. Udal hautetsien artean, sozialistek ere txalo egin zuten. Eta jarraian alkatea zoriontzera gerturatu ziren. Ikusleen artean zeuden sozialista gehiago ere gerturatu zen Ana Carrere zoriontzera, tartean Batzar Nagusietan orain arte kargudun izan den Rafaela Romero sozialista, Petri Romero Udal zinegotziaren ahizpa. Ika-mika txikiak izan ziren, Rafaela Romero tartean, tentsioaren eraginez bereziki. Ez zen gehiagora iritsi eta pixkanaka ikusleak batzarraldi aretotik atera egin ziren. Kazetariak adierazpen bila zebiltzan bitartean, EH Bilduko ordezkariak taldeko argazkiak egin zituzten aginte-makilarekin.

Ana Carrerek alkate bezala egin zituen adierazpenetan, beste politikagintza modu bat iragarri zuen: "Gauzak hobeto egiteko helburuarekin aurkeztzen gara gaurkoan, azken lau urteotan egin ditugun akatsak zuzendu eta gainontzeko alderdiekin elkarlanerako eta Andoainek behar duen egonkortasun administratiboa eta politikoa eskuratzeko jarrera positiboarekin".

Sozialisten kritika jeltzaleei



"Andoaingo EAJ-PNVk azpikeriaz, beldurra eraman da eta apropos jokatu du. Politika mailan ausart izan behar dugu, ausart jokatu behar dugu eta zoritxarrez gaur ez da horrela izan. Gure aldetik argi daukagu beti bezala jarraituko dugula Andoaingean pentsatzen. Gure jokabidea norabide horretan joango da". Horiexek izan ziren hedabideen aurrean Maider Lainezen adierazpenak, batzarraldia amaitu eta berehala. Maiatzaren 24az geroztik Andoaingo herriak aldaketa eskatu zuela aldarrikatu izan du.

Kargu-hartze ekitalditik orduak igarota, gau horretan bertan, sare sozial ezagun batean esker ona adierazi zien egun osoan zehar elkartasuna eta gertutasuna agertu zieten guztiei: "Egun gogorra izan da, ezin dut ukatu. Baina eskerrak eman behar dizkiet maitasuna eta babesa eskaini didaten hainbat pertsonei. Horri esker eramangarria izan da. Jasotako elkartasun osoa esker-tzeko hitzik gabe nago".

Aiurri astekaria Lainezekin harremanetan jarri zen, baina oraingoz adierazpen gehiago ez egitea erabaki du.

Joseba Egibarren erantzuna sozialistei



Asteazken goizean, Euskadi Irratian Joseba Egibar GBBko lehendakariak Andoaingo afera hizpide izan zuen. Gasteizko kasua aipatu nahi izan zuen lehenik, "aldeztik aurretik elkarri babesa ematea adostuta genuen, baina PSE-EEK bazekien aldeztik gurek arazoa Andoaingoan genuela. Birritan esandako kontua zen. Benetako gaia edo arazoa niretzat Gasteizen zegoen, goizeko 08:00etatik PSE-EEK dagoeneko Gasteizen babesa azaltzeko ezintasuna adierazi zuelako. PPK izugarri presionatzen zituela adierazi zuten. Eta Andoaingo

plenoa 10:00etan hasi zen. Sozialistentzat Andoaingo arazoa izango da, baina gehienbat aitzakia da".

Andoaingo EAJren baitan zailtasunak berretsi zituen, "2003an PSEk eta PPK albora utzi zutelako gure hautagaia eta beraiek atera zuten alkate-tza. Hori herrietan ez da hain erraz ahazten". Etorkizunari begira jarrita daudela adierazi zuen: "Olasagastik bere postua herri batzarraren esku utzi du, eta bukatu da".

Gaur gaurkoz herri mailako jeltzaleen esku dago zinegotziaren akta, eta bere etorkizuna zinegotzi modura.

EUSKARA PLUS EKIMENA BANAIZ BAGARA ELKARTEAREN ESKUTIK

Altaf Mohamed: “Kebabeko bezero gehienak gazteak dira”

Altaf 35 urteko pakistaniarra da, eta bi Kebaben arduraduna da, bata Andoaingo Kale Berrian dagoena, eta Urnietako Idiazabal kalean bestea. Geroz eta aiseago moldatzen da euskaraz, jatorri

ezberdineko jendea euskararen inguruan biltzen duen Banaiz Bagara elkartearekin ia urtebete ikasten pasa ondoren. Bezeroei poliki-poliki hitz egiteko eta pazientzia edukitzeko eskatzen die.



Noiztik zabilta kebab izeneko negozioarekin?

Altaf Mohamed: Orain zazpi urte Andoaingo taberna irekitze- ra animatu nintzen. Nahiko ondo joan da hasieratik, eta horrexegatik, Urnietan bigar- rengoa irekitzea erabaki nuen orain bi urte; nire anaia hango- az arduratzen da eta ni hemen- goaz. Andoaingo handiagoa da biztanle kopuruari begira, kale mugimendu gehiago dauka, eta horregatik lan gehiago sor- tzen zaigu han. Urnietan oraindik ez gara oso ezagunak, egia esanda.

Zer eskaintzen duzue bietan?

A.M.: 40 bat aukera ezberdin eskaintzen ditugu, Turkiako sukalde tipikotik ateratakoak. Oilaskoarekin edo txekor ha- ragiarekin egindako kebabean oinarritzen dira. Tabernan ber- tan zerbitzatzen dugu, baina etxerako zerbitzua ere badau- kagu, telefonoz hots eginez ge- ro. Inguruko herrietatik ere hots egiten digute (Hernani, Zizurkil, Aduna...). Ondotxo ikasita dauzkagu herri horieta- ko kale izendegiak, eta etxe es- karatzen zenbakiak. Maiz, te- lefonoz bestalde dagoenaren ahotsa entzutearekin batera, badakigu nor den eta zer nahi duen!

Badauka konplikaziorik sukalde- ko lanak kebabeko negozio bate- an?

A.M.: Ez da oso konplikatua, egia esanda. Ez duzu sukalde- an oso aditua izan beharrik. Alemaniatik Gasteizen dagoen biltegira ekartzen da generoa, nahiko egina, eta ondoren Eus- kal Herriko kebab komertzio guztietara banatzen da. Zailta-



Andoaingo urte luzez lanean jardun eta gero, bi herrietara zabaldu du negozioa.

Banaiz Bagara elkarteak sustatu duen “Euskara plus” webgunean irakur daiteke elkarrizketa

sunik handiena, suarekin ta- mainan jokatzeko orduan ger- tatzen da. Aldi berean, ondo zaindu behar zenbat gatz, esne edo yogurta botatzen zaion.

Zein motatako bezeroak gertu- ratzen zaizkizue?

A.M.: Gazteak dira gehienak. Hemengo gazteak jada ohitu dira kanpotik ekarritako jaki eta platerak jatera. Gertukoak egiten zaizkie pitzak, macdo- nalsak... Helduek errezeloak edukitzen dituzte kanpotik da- torren horrekin, ezezaguna egiten zaielako edo. Hori bai, tabernan dagoen heldu horri, kebab zatitxo bat eskaini eta probatzera animatzen direnak, goxoa dela aitortzen didate.

Noiz edukitzen duzue bezeroen eskari gehiago?

A.M.: Asteburuetan izaten da mugimendurik handiena, za- lantzarik gabe. Gazte koadri-

lak afaltzera-eta etortzen dira tabernara bertara, edota tele- fono bidezko eskaera egiten digute. Azken horiek, denek ere ordu bertsuan nahi izaten dute, eta pazientzia edukitzeko eskatzen diegu, ordu erdi eta ordubeteko tarte horretan iri- tsiko zaiela-eta etxeraino eska- tu dutena.

Zer moduz bezeroekin?

A.M.: Primeran, bai Andoaingo baita Urnietan ere. Harro esan dezaket gure tabernetan inoiz ez dela arazorik izan, ez eta bo- rrokaldirik ere. Badira taberna- ra maiz etortzen direnak eta horien artean adiskide ugari daukat, konfiantzakoak. Bada bat, egunero etortzen dena ba- serritik. Horrekin euskara ikas- ten ari naiz egunero pixka bat. Zer esan nahi du honek, zer hark..., galdetzen diot, eta be- rak zintzo erantzuten dit.

Baduzu euskara ikasteko inte- resa?

A.M.: Noski, nire bezero asko- ren hizkuntza da eta nik ere horiekin euskaraz moldatu nahiko nuke noizbait, natural- tasun osoz. Zaila da, baina

erronka jarrita diot nire burua- ri. Banaiz Bagara elkarteak etorkinentzat Andoaingo osti- ralero jartzen duen euskara ikastarora joan nintzen ia urte- betez, Petra Elser irakasleare- kin, eta izugarri aurreratu ahal izan nuen. Jarraitu izan banu iruditzen zait honezkero eus- karaz primeran hitz egiten ja- kingo nuela. Kontua da ezin dudala negozioa utzi, eta ezi- nezkoa zaidala klaseetan parte hartzea.

Zer moduz moldatzen zara beze- roak euskaraz mintzatzen zaiz- kizunean?

A.M.: Gogoko dut jokabidea. Elkarrizketa laburrak direne- an, zertxobait ulertzen diet. Bestela, lasai! oihukatzen diet. Kontsumizioaren inguruko hitz trukaketak ondo eramaten ditut, ulertzen diet zer eskatu didaten; gero hortik aurrera, gehiago kostatzen zait hizke- tan askatzea.

Zenbat hizkuntza dakizkizu?

A.M.: Pakistango ofiziala (Ur- du-a), nire jaioterrian herritar xeheek hitz egiten dutena (Panjabi-a), greziarra, gaztela-

“Euskaraz, elkarrizketa laburrak direnean, zertxobait ulertzen diet. Bestela, lasai! oihukatzen diet”

Altaf Mohamed

nia, ingelesa eta euskara zer- txobait.

Noiz heldu zinen hona?

A.M.: Grezian zortzi urte egin nituen eta ondoren Espainiara etorri nintzen, orain dela zazpi bat urte. Eraikuntzako alorre- an aritu nintzen, baina krisia- rekin amaitu zen hangoa. La- sarten bizi nintzen orduan, eta lagun batek animatu ninduen Andoaingo kebab bat ireki ze- zan.

Bizitza erdia etxetik urrun dara- mazu. Herri minik sentitzen ez?

A.M.: Bai, alajaina! Han gura- soak eta bi anai-arreba utzi ni- tuen eta gustura asko itzuliko nintzateke hara. Bere sus- traiek erakartzen dute gizakia, baina gogorra da errealtatea munduan. Beharrak bultza- tzen du emigratio gehiena, gu- rea bai behintzat! Zuek eus- kaldunak ere, lehen Amerike- tara joan izan zarete, eta azke- naldian Alemania, Frantzia eta horietara abiatzen zaretenean, ez zoazte plazerragatik, lan bi- la baizik. Egin kontu, Euskal Herrian hiru egunetan lanto- kian irabazten dena lortzeko, Pakistanen hilabete osoa be- har da.

Pakistanek baditu baliabide naturalak, berez ez da txiroa, baina munduan leku gehiene- tan gertatu ohi den bezala, on- dasuna oso gaizki banatuta da- go, injustizia da nagusi. Sobe- ran daukanak ez dio eman nahi ezer ez daukanari.... Hu- ra ekonomikoki hobetzen de- nean, orduantxe erabakiko dut itzultzea seguruenera.

Bien bitartean, tarteka etxe- koei egiten dizkiedan bisitekin kontsolatzen naiz.

Oihal katea eguerdian, eta ekitaldi nagusia arratsaldean

Gure Esku Dago ekimenaren jaialdi nagusia Donostian



Pertsona aski ezagunek babestu dute ekimena.

“Gaur hautentsontzia, bihar erabakia” leloari jarraiki, 17:30ean Donostian eta Euskal Herriko gainerako hiriburuetan hautetsontziak irudikatuko dituzte. Azken egunotan pertsonai ezagunek deialdiarekin bat egin dute, eta Andoaindik eta Urnietatik herritar ugari agertuko dela espero da. Egun horretako joan etorrietarako garraio publikoa erabiltzea aholkatzen dute, eta egun horretarako zerbitzua indartuko dute.

OIHAL KATEA 12:00ETAN

Eguerdian, herriz herri jositako oihal guztiekin Urumea ibaia inguratuko da sei zubiak lotuz. Andoain eta Urnietako herrita-

Ekitaldinagusia arratsaldeko 17:30etik hasiko da Anoeta estadioan

rrak tren geltokiaren ondoan kokatuko dituzte, Maria Kristina eta Santa Katalina zubien artean, Astigarraga eta Hernaniko biztanleekin batera “Hernanialdea” izeneko gunean. Parte hartzaileei garaiz joateko dei egin diete antolatzaileek.

ANOETA ESTADIOAN 17:30EAN

“Gaur hautentsontzia, bihar erabakia” leloari jarraiki, ekitaldi nagusia iritsiko da arratsaldeko 17:30ean.

ANOETA ESTADIOKO TXARTELAK SALGAI

15 urtetik gorakoek sarrerak 10 euroren truke jaso ditzakete; 3-14 urte bitartekoek, aldiz, 5 euro. 0-2koak doan sar daitezke, baina hala eta guztiz ere txartela hartu beharko dute. Mugikortasun arazoak dituztenek Internetez eskura dezakete.

Andoain. Gure Esku Dago taldeak andoaindarrei Donostira joateko deialdia luzatu die. Sarrerak salgai Li, Keinu, Ernaitza, Buruntza, Irunberri eta Xaxin.

Urniet. Biok okindegia, Trazos ileapaindegia, Kantoi eta Xauxar tabernetan.

Erreportari Gaztea Saria, aurtengo irabazleak



Lehen saria jaso zuten Santa Krutzek eta Abregok.

Ostegunean banatu zituzten sariak Gazte Lokalean.

aipagai izan dute epaimahai-kideek.

Lehendabiziko saria:

Gazteen xalotasunetik, doinu-nuen maitasunera

Saridunak: Paula Abrego eta Sara Santa Kruz.

Epaimahaikideek, aho batez, zalantzarik gabe aurtengo edizioko irabazletzat jo du. Titulua, diseinua, erreportajearen garapena... Euskara maila aldetik lan onena da.

Bigarren saria:

Iturzaeta, urrezko ezkerria

Sariduna: Irati Uranga.

Aurten proposatutako lanari ongi lotua, bertan andoaindar baten bizitza azaltzen baita. Erreportajearen pelotariaren arlo desberdinen berri eman digute, informazioa jasotzeko iturri ezberdinak erabiliz. Lan honen diseinua ere

Hirugarren saria:

Arrateko kantxa, Andoaingo txantxa

Saridunak: Mikel Aranalde eta Jon Jauregi.

Kazetaritzak gauzak aldatzeko eta salaketarako ere erabil daitekela azaltzen digu. Epaimahaikideek erreportaje honen lehenengo zatia azpimarratu dute, pilotalekuko ga-beziak xehetasun handiz jaso dituztelako.

Aipamen berezia:

Puzzle baten modura

Saridunak: Iker Gomez Garcia eta Ane Haiz Peña.

Familia eredu ezberdinak islatzeko saiakera bikaina da. Erreportajearen estilora gerturatzea falta zaien arren, proposamena ausarta da.

Gerra hura zergatik?

Lekukotzak bildumako 9 eta 10 zenbakiak lehenengo karlistaldiari buruzkoak

Bibliografia historiko zabal baten azterketaren ondorio, Jon Unanuek idatzia.

Dagoeneko salgai, Andoaingen eta Urnietan ohiko saltokietan 5 euroko prezioan

Jaxinto, ikastolen lemazain

(Hiazinto Fernandorena Setien)

Liburua salgai Aiurrin. 12€

Ikasturte amaiera Egapen



Begoña Ubillos, Milagros Errazkin eta Arantxa Lasarte omendu zituzten.

Eguraldia kaskarra izanagatik ere, parte hartze handiarekin igaro zen ikasturte amaierako jaia. DBH 3ko gurasoek antolatutako bazkarian hiru-

rehun lagun bildu ziren. Arratsaldean berriz, jolasera-ko eta dantzarako aukera izan zen. DJ baten musikarekin amaitu zen jaia.



Dantzak ikusteko jendetza bildu zen jolastokian.

Presentacion de Maria ikastetxearen ospakizuna



Dantza saioekin hasi zen ospakizuna, larunbat goizean.

“Egun itzela pasa genuen ikasturte bukaerako jaialdia ospatzen”, horixe diote ikastetxeko arduradunek. Dantza, bazkaria, karaokea, puz-

garriak, bingoa..., denetik izan zen. Bosko Anitz txarangaren doinuekin bukaera eman zioten ikasturte amaierako jaialdiari.



Dantzarekin hasi eta txaranga doinuekin amaitu zuten eguna.

Hainbat baserri barrutik ezagutzeko aukera, ENBAren eskutik

“Ongi etorri baserrira!”, uztailean Urnietan

Uztailaren 3an eta 4an baserri girora hurbiltzeko ekimenaren bigarren edizioa ospatuko da, ENBA nekazal sindikatuaren ekimenez. 16 baserri bisitatzeko aukera izango da, tartean Urnietako Adarrazpi eta Eula baserriak. Adarrazpin ardi, gazta eta mamiari buruz zer ikusia eta ikasia izango da. Eulan, nola ez, sagastietan eta sagardogintzan duten eskarmentua erakutsiko dute.

Helburua didaktikoa da. ENBAren arabera, “gure baserrietako ateak zabaldu nahi ditugu gure etxeak, familiak, soroak eta animaliak ezagutu ditzaten. Geuk ekoizten duguna bertatik ezagutu ondoren, gehiago balora dezaten. Horretarako Ate Irekietako eguna antolatu dugu eta hiritargo zabalaren artean hedatzea nahi genuke, baserritarrak eta kontsumitzaileak gerturatzeko asmoz”.

Iaz martxan jarri zen eta antza denez erantzun ona izan zen. Hori dela eta, bisitaldien esperientzia egun batetik bi egunetara pasako da. Eta horrez gain, iaztik hona bisita daitezkeen baserri kopurua bikoiztu egin dute.

Urnietarrek, nahi izate aldera, bertakoa bisitatu edota kanpoko ezagutzeko aukera izango dute. Izena emateko aukera zabalik dago, telefonoz edota posta elektronikoz egin daitekeena.



Bisitaldi gidatuak izango dira, hamasei baserri ezberdinetan.

Uztailak 3, ostirala

11:00-14:00

- Oiartzun. Galtzata baserria (ardiak-gazta) eta Pelu zahar baserria (arrautza ekologikoak-nekazalturismoa).
- Irun. Irungo Lastaola baserria (esne behiak), Oihanalde baserria (larre behiak) eta Ola sagardotegia (sagastiak-sagardoa).
- Amezketan-Mendiko baserria (oilaskoak) eta Zeraingo Lumagorri hiltegia.
- Urnietan. Adarrazpi baserria (ardiak-gazta/mamia) eta Eula sagardotegia (sagastiak-sagardoa).

Uztailak 4, larunbata

11:00-14:00

- Getaria. Agerre-Berri baserria (ardiak eta larre behiak) eta Gaintza txakolindegia (mahastiak-txakolina).

“Gure baserrietako ateak zabaldu nahi ditugu gure etxeak, familiak, soroak eta animaliak ezagutu ditzaten”

- Beizama. Urki baserria (aire libreko txerriak) eta Arreta baserria (ardiak-gazta).
- Azpeitia. Uresaundi baserria (baratzea) eta Odria baserria (larre behiak).
- Oñati. Estenaga baserria (esne behiak) eta Gomiztegi baserria (ardiak-gazta).

Izena ematea

943 650 123.
ongietorribaserrira@enba.eus
Azken eguna: Ekainak 28.
Izena ematea: Dohainik.
Zozketak: Kalitatea fundazioak saskitxoak eta nekazalturismo batean 4 pertsonentzako 2 gauen zozketa.

EGAPE DANTZA TALDEAREN IKUSKIZUN BERRIENA



Igande arratsaldean Egape dantza taldeak ikasturte amaierako ikuskizuna eskaini zuen eta, ohi bezala, ikusleen txalo zaparrada jaso zuen. Herritarrak dagoeneko goi maila-

ko ikuskizunak egitera ohitu dituzte. Ikusmina geroz eta handiagoa da eta, gaur gaurkoz, ikusleak asebetetzeko gai dira.

Aiurri



2015, ekaina

San Juan jaiak, San Pedro jaiak

GOIBURU GOLF CLUB



- Afariak
- Udako Ludoteka
- Golf denontzat

JAIETAN ONDO PASA



Informa zaitez: 943300845 - Andoain

Jesus Ibañez kalera itsatsitako musikaria

GORA KALE TXIKI TXARANGAREKIN, SUSANA CENCILLOREN SOINUAK TALDEAREKIN, GABONETAN LA SALLE-BERROZPE IKASTETXEAREKIN, ERREPUBLIKA EGUNEAN BANDA ERREPUBLIKANOAREKIN... SALTA ASKOTAN MURGILDUTA DABIL.

Kalea eta doinu alaiak. Andoaindarren artean inkesta egingo bagenu binomio horrekin nor identifikatzen duten galdetuz, Jexus Ibañez *Txupi* izendatuko lukete askok. Nork ez du ikusi herriko hainbat jaietan Gora Kale Txiki txarangarekin, Susana Cencilloren Soinuak taldearekin, Gabonetan La Salle-Berrozpe ikastetxearekin, Errepublika egunean banda errepublikanoarekin... Sanjuanetan ere ez du hutsik egingo, eta txarangarekin aterako da.

Zein egunetan irtengo zarete kalera?

Jesus Ibañez: Bi txandetan. Hilaren 23an, arratsaldez eta San Juan egunean eguerdi partean.

Zenbat musika tresna jotzen dituzu?

J.I.: Juanito Loinaz Jainkoa-rekin akordeoia ikasi nuen eta harekin ibiltzen naiz kalean batez ere. Los Rubi taldearekin eta Luziano Uribesalgo abeslariarekin teklatuak jotzen ditut. Hala ere, esan behar dut orain hiru bat urtetik hona bonbardinoari heldu diodala txarangan. Izan ere, txarangak Tolosako inauterietan ikusten nituen aldiro, inbidietan egoten nintzen, ezin kabiturik. Nik ere horiek bezala gozatu nahi nuela erabaki nuen arte. Horretarako, jakina, metalezko instrumenturen bat ikastea beste erremediorik ez zegoenez...

Ez al da nekagarria kalean gora kalean behera ibiltzea, instrumentua eskuetan?

J.I.: Akordeoiaren hauspoa ireki eta itxi behar horrekin neka-neka eginda bukatzen dut batek besoetatik eta bizkarretik, baina oraingoz poliki moldatzen naiz, kapaz naiz sei kiloko akordeoiari eusteko. Beste gauza litzateke 9 kilokoa eraman behar izatea, besoa hondatuta baitaukat istripu bat edukiz geroztik. Osasunak eta musikarako grinak irauten duen bitartean... Bonbardinoarekin, berriz, ez daukat arazorik, erraz eramatekoa da bi eskuekin.

Gainera, zenbait artimaina ikasi ditugu txarangarekin, taldeko beteranoen kexen ondorioz. Besteak beste, piezak gehiegi ez errepikatzen saiatzen gara.



Jesus Ibañez *Txupi*, Gora Kale Txiki txarangaren lehenbiziko kaleagerraldiaren argazkiarekin.

“Kalean orduetan eta orduetan musika jotzen aritzeko, osasuna eta abilitatea eduki behar da”

Kaletxikiko aldapa egingo zaigula gogorrena uste du jendeak, baina ikasita gaude jada: erdi bideraino iraungo duen musika pieza jotzen dugu. Nekezagoa egiten zaigu Goikoplazarako aldapa pikoia, kalejiraren amaieran izaten baita!

Etxean zer moduz daramate zure musikari fazeta?

J.I.: Fama txarra erantsi izan zaigu betidanik, musikariei. Baina parranda eta zurruta zalearena ez dut uste erabat egiazkoa denik; kalean orduetan eta orduetan musika jotzen aritzeko, osasuna eta abilitatea eduki behar baita. Hori bai, konpromisoak etengabeko egokitzen dira, asteburuetan batik bat, eta

familia suertatzen da kaltetu nagusien. Nire emazteak kaleko musikari bezala ezagutu ninduen; bazekien musika erraietaraino sartuta zeukan pertsona batengana arrimatu zela, eta urte hauetan nola edo hala eraman izan du nire bizimodu aldrebes hauxe. Benetan eskertzekoa da etxean erakusten didaten pazientzia!

Zenbatetan irteten zarete txarangarekin urtean zehar?

J.I.: Hogeitik gora alditan bai! Batzuen batzuk kobratzekoak izaten dira, baina beste batzuk gizarte elkarte jakinen aldekoak izaten dira, laguntzakoak deitzen diogunak. Hamaiketakoarekin konformatzen gara halakoetan.

Zein izaten da zuretzat emanaldirik gogoangarriena?

J.I.: Joaten garen tokietara, guztietan bikain hartzen gaituzte eta horrekin gustura itzultzen gara etxera. Hori bai, emanaldi bat apartatu beharko banu, irailean Donostiako alde zaharrean egiten duguna aipatuko nuke. Etiopia Utupia Gobernu Kanpoko Erakundeak

“Gazteentzat irtenbide polita da txaranga, eta ikaragarri gustura ibili ohi dira zaharragoekin”

deituta joan ohi gara; 20-25 musikari biltzen gara, eta egitan, kale estu hauetan sortzen den soinua, txaranga batek lor dezakeen soinurik zoragarriena izaten da.

Noiz sortu zen Gora Kale Txiki txaranga?

J.I.: 2007an izan zen hori. Kale Txikiko jaiak girotzeko asmoz, musikari batzuk bildu eta kalera irtetera animatu ginen, batere entsaiatu gabe! Ez genuen beste inongo pretentsiorik, baina hain ondo atera zen, talde iraunkorra eratzea erabaki genuela. Harrezkero, Kaletxikiren izena zabaltzen ari gara bazterretan, eta esan dezakegu, trukean, Ontza elkarteak biltzeko lekua eta geure afaritxoak egiteko babesa eskaintzen digula.

Txarangen munduan gehiegi ikusten ez den filosofiari eusten diozue...

J.I.: Egia esanda, nahiko haustaileak gara hiru perkusioz (txapa, xaxa eta bonboa) eta sei-zazpi metalez osatzen diren txarangen formatu klasikoarekin. Emanaldia hitzartua dagoen egun horretan zenbat gauden prest kalera irteteko, horrenbestek osatuko dugu txaranga.

Hori horrela izan dadin, zenbait gauza hartu behar dira kontuan. Hasteko, txarangak edonorentzat dauzkala irekiak ateak. Kideen adin tartea ikusi besterik ez dago: 8 eta 9 urtekoak dira gazteenak, eta Luxio Aranburu eta Jose Luis Fernandez Fitero zaharrenak 80 urterekin. Benetan poza ematen du hainbat belaunaldietako musikariak elkarrekin ikustea eta horren ondo moldatzea denok ere. Gazteentzat irtenbide polita da txaranga, eta ikaragarri gustura ibili ohi dira zaharragoekin. Egia da musika eskolan ikasten dutela, eta beren emanaldiak ematen dituztela jen-



MUJKA TOLARETXIPI ANAIK
MAPFRE
ANDOAIN

Zerbitzurik onena preziorik hoberenean

Jai zoriontsuak opa dizkizuegu

Eskola kalea, 8 / ☎ 943 592 307 / Faxe: 943 300 161 / 20.140 ANDOAIN / e-posta: gailen@euskalnet.net

daurrean. Baina Basterotik ateratze eta kalea zapaltze horrek ez dauka preziorik horientzat; egundoko eskarmentua hartzen dute musika munduan! Taldean nahiko asanblearioak garela esango nuke, nahiz eta niri egokitu zuzentzea txaranga kalean garenean. Olagainen ostiraletan egiten ditugun entseguetan erabakitzen dugu nora joan, zer jo...

Musika pieza ugari estreinatzen dituzue urtean zehar...

J.I.: Egia da! Kaletxikinko jaietan, urrutira joan gabe, Rumba Gora Kale txiki pieza estreinatuko dugu, Joxe Mari Oiartzabalek sortu duena guretzat. Sortzailea da bera, eta ez hori bakarrik, abestiak instrumentu bakoitzera moldatzeko gaitasuna dauka. Azken aldian, Tolosako inauterietan jotzen den Ana edo Ituntxulo elkarteko ereserkiaren moldaketak egin dizkigu.

Pieza berri horiek etxean ikasi, entseguetan probatu behin eta berriro, akatsak zuzendu... ahalegin handia eskatzen digu guzti horrek, baina zer esan-go dizut, pribilegio bat da bera bezalako fenomenoak ondoan edukitzea! Jada ohikoa egin zaigu entseguetan azaltzea, eskuetan abesti berri baten edo zahar baten partiturak eskuetan dituela. Oraindik orain, Azpeitiko musikari ezaguna batek aitortu dit zenbat inbidia eragiten dion gure egoerak, "Azpeitikoa balitz gizona, honezkero jarriko genion bere izena bertako musika eskolari".

400. urteurrenaren harira kaleratuko diren bi disketako baten bultzatzaileetakoa zara...

J.I.: Herriko elkarten ereserkiak bilduko dituen diskaren prozesuan parte hartu dut batez ere. Behin betikoa ez den grabazio *pirata* lortu dut, eta autoan entzuten dut tarteka. A ze gozatuak



Ibañez taula gainean, Kaletxikinko jaietan.

“Kaletxikinko jaietan Joxe Mari Oiartzabalen Rumba Gora Kale txiki pieza estreinatuko dugu”

hartze ditudan! Benetan, harritu egingo da jendea ikusita oso kalitate oneko diskak egin direla!

Oporren ostean kaleratzekoak dira bi diskoak, eta ziur naiz egundoko arrakasta edukiko dutela herrian. Herritarren gozamenerako izango dira, eta be-

tirako geratuko dira erabilgarri. Denbora gutxian, altxortzat joko dira Andoaingo kultur ondarean.

Los Rubi taldearekin ere jarraitzen duzu dantzaielak ematen.

J.I.: Bai, Luziano eta Fernando Uribe-salgo anaiekin eta Luis Trekurekin. Baina gero emanaldi gutxiago ateratzen zaizkigu. Ezkontzak, batez. Kintoen afariak, elkarteetan jaiak eta halakoak, besterik ez. gehiago aritzen gara Luziano eta biok osatutako formatu txikian. Egoerarik bitxienetara egokitzen gara; jo izan dugu Leitzaranen, Bertxingo parajea, hildako baten errautsak zabal-

“Mendeurreneko bi diskoak denbora gutxian, altxortzat joko dira Andoaingo kultur ondarean”

tzeko ekitaldi batean ere. DJ-en estilok irauli egin dute mundu hori. Egin kontu: orain ez asko arte, Tolosan bazi-ren lau bat talde oso kalitate onekoak, izugarri mugitzen zirenak han hemen, astebururo: bada, lauek utzi behar izan diote jotzeari.



Euskal kantu dantzagarriak, Goikoplazan

DEMODE QUARTET LAUKOTEAK IKUSKIZUN BERRITZAILEA ESKAINIKO DU EKAINAREN 23AN, ASTEARTEAREKIN. DAVID ROSCO URNIETARRA TALDEKIDEETAKO BAT DA.

Goikoplaza euskal kantuez girotuko dute, baina modu berezi eta umoretsuan. Tartean, abeslari iruñearrekin batera, David Rosco urnietarra arituko da. Joli Pascualenak ikuskizunaren xehetasunak eskaini ditu.

Benito Lertxundi, Mikel Laboa edo Xabier Lete, baina samba, reggae edo afrikar erara abestuko dituzue. Nolatan moldaketa hori?

Joli Pascualena: Ikuskizun honetan, abestiak egin baino lehen, Patxi Barco eta Kepa Errastik gidoia egin zuten. Beraien ustez, estilo guztiek gure kulturaren oinarria dute: afrikar musikak, reggae-ak, sambak, bollywoodak... Horixe hartu genuen kontuan abestiak moldatzerakoan; beraz, abesti bakoitza zein estilotara eraman pentsatu genuen.

Nola sortzen dituzue? Zertan inspiratzen zarete?

J.P.: Entseguetan ateratzen dira ideiak, estiloak eta egitura posibleak. Sormenari eta umoreari askatasun osoa ematen diogu, eta hortik aurrera, etxerako lanak ere egiten ditugu ahotsak armonizatzeko. Etxean egindakoa entseguetara eramaten dugu azken ukituak eta moldaketak egiteko.

Estilismoa asko zaindu ohi duzue. Zein arropa edo elementu berezi eramango duzue oholtza gainera?

J.P.: Udarako ezin hobea! Txuriz jantzita joango gara euskal zapiarekin egindako detaile askorekin (zapatak, txanoa, gerrikoa, pajarita...).

Zergatik zuri eta serio itxura



Ikuskizuna ia ordu eta erdikoa da, a capella abesten dutena.

hori, umorez betetako ikuskizuna bada?

J.P.: Umorea eta jantzi dotoreak guztiz bateragarriak dira. Dena den, gure pertsonaiek serio itxurarekin azaldu nahi dute euskal musikaren teoria hori, eta horretan ere umorea badago.

Umore hori kontzertuetan ikusleengana iristen dela nabaritzen al duzue?

J.P.: Bai, gustura hartzen dute gure ikuskizuna eta umorea. Oso umore zuria da, gure arteko tira-birak eta harrikadak agertzen baitira. Ikuskizuna bukatzean, ikusleak irribarrea ahoan dutela etortzen zaizkigu, eta hori da gure lanaren alde onena. Horrela konpentsatzen dira lan egindako ordu guztiak.

Abesteaz gain, dantza eta instrumentu batzuk ere sartzen dituzue. Zergatik?

J.P.: Gure ikuskizuna ia ordu eta erdikoa da, a capella abesten dugu gehienetan eta arnasa hartzeko une batzuk oso ondo etortzen zaizkigu. Horrez gain, oso ongi pasatzen dugu instrumentuak jotzen eta koreografiak dantzatzen.

Beharrezkoak al dira zuen doinuekin osagarri izateko?

J.P.: Beharrezkoak ez dira, baina dantzatzu eta instrumentuak joz, ikuskizunari kolore gehiago gehitzen diogula uste dugu, eta gainera, emozio ezberdinak ukitzen laguntzen digute.

Inoiz ikusi ez zaituzten norbait, zerekin harrituko da Andoaingo kontzertuan?

J.P.: Egiten ditugun abestien moldakeekin. Ziur nago ez dutela inoiz pentsatu kanta horiek erritmo eta estilo berri hori izan dezaketenik.

Arrez ezagutzen ez zaituztenak harritzeraz ere iritsiko al zarete?

J.P.: Bai, berriro harrituko dira. Izan ere, asko dira behin baino gehiagotan ikuskizun bera ikustera etortzen direnak, eta askotan, abestiak ezagutu arren berriro barre egiten dutela aitortzen dute. Hori da antzerkiaren magia: emanaldi bakoitzak zer bait ezberdina edukitzea.

Zuzenekoetan ahotsak konpennetratzea eta oreka lortzea ez da erraza izango. Zer da zailena?

J.P.: Abesti bakoitza estilo ezberdinetakoa da eta estilo ba-

“Andoainera bueltatzeak andoaindarrei gure lana gustatzen zaiela eta berriro ikusi nahi dutela esan nahi du”

koitzak ahotsaren kalitate, dinamika eta erritmo ezberdina eskatzen du. Hori gainera, koreografiarekin eta pertsonaia mantentzearekin bateratu behar da. Hori da, nire ustez, denetan zailena.

Horrelako kontzertu batek ariketa fisiko eta mental handia eskatzen al dizuete?

J.P.: Bai. Gorputza berotzeko eta testuari errepaso txiki bat emateko denbora behar izaten dugu. Abestu baino lehen, laringea berotzeaz gain, gorputza ahotsari laguntzeko prest jarri behar dugu; hori baita gure instrumentuaren oinarria.

Toki askotan abestu duzue, due-la gutxi baita Basteron ere. Zer suposatzen du zuentzako Andoaingo Sanjuanetan abesteak?

J.P.: Ekainaren 23ko gau berezi horretan berriro bueltatzeak andoaindarrei gure lana gustatzen zaiela eta berriro ikusi nahi dutela esan nahi du. Horregatik, ohore handia eta, aldi berean, ardura handia da guretzat.

Zein izango da zuen erronka kontzertu horretan?

J.P.: Betiko erronka lortu nahiko genuke oraingoan ere: gaitz nontzeko munduko soinuek euskal musikatik edan duten teoria jendeari sinistaraztea. Gure pertsonaiek, behintzat, horixe erakutsiko dute.



Ekain Zubizarreta, Anger taldeko kidea

AURTENGO SAN JUAN JALETAKO LEHEN GAUEAN, ANGER TALDEAK ZUZENEAN JOKO DU NAFARROA PLAZAN, NIÑA COYOTE ETA CHICA TORNADO ETA INGO AL DEU TALDEEKIN BATERA.

Kontzertuaz, azken diskoaz eta taldeaz hitz egin du Ekain Zubizarreta baxu-jotzaile andoaindar-arrasatearra. Gertuko jendearen aurrean jotzeak ilusioa egiten diola aitortu du.

Lehenengo urteko azaroan “Sute perfektua” diskoa kaleratu zenuten. Zer moduz doa aurkezpen bira?

Ekain Zubizarreta: Egia esan, nahiko ondo. Eten batzuk izan ditugu arrazoi pertsonalengatik; aita izan nintzenean, bateriak hatzamarra apurtutakoan... Arazotxo horiez gain, oso gustura gabiltza. Sentsazio ona izan dugu zuzenekoetan, eta diskoak zuzenean potentzia hartzen duela ikusi dugu. Gainera, erantzun ona jaso dugu eta horrekin pozik gaude.

Tolosako Bonberenean grabatu zenuten. Zer moduzko esperientzia izan da?

E.Z.: Bonbereneak disko luzea grabatu dugun lehenengo aldia izan da. Dena den, aurretik etxeko jendearekin harremana bagenuen. Beti etxean bezala sentitu gara, kontzerturen bat ematera joan garenean, hainbat ekimen medio abesti batzuk grabatzera joandakoan... Beraz, harremana lehenagotik bagenuen.

Orain arte, beste esperientzia batzuk izan ditugu grabaketetan; beste jende eta toki batzuetan. Oraingo honetan, ordea, Karlos Osinaga Txapekin grabatzeko aukera suertatu zitzaigun. Txap betidanik izan da gure erreferente eta gogoz ginen berarekin lan egiteko. Aukera hori atera zenez, Bonberenean egitea erabaki genuen.

Esperientzia oso ona izan da. Grabaketa oso prozesu ederra izan da; lan egun gogorak baina, aldi berean, politak izan baitira. Txap-ek ekarpen polita egin du eta oso gustura geratu gara.

Zuen diskoan “Zaindu maite duzun hori” kanta sartu duzue. Lehenengo aldia da bertsio bat grabatu duzuela. Nolatan?

E.Z.: Urte hauetan zehar askotan jo izan



Ekain Zubizarreta Anger taldeko kidea da.

ditugu bertsioak, baina hau da disko batean sartu dugun lehenengo aldia. Beti izan dugu horrelako esperimentuak egiteko zaletasuna, tendentzia berriak edo beste estilo bateko musika gurera ekartzeko erakartzen gaituelako. Arrasaten horrelako ekimenetan hartu izan dugu parte; bertsio kontzertu batean, kasu.

Ruper Ordorikaren kantua Arrasateko Elkartasun Egun baterako prestatu genuen. Zuzenean probatu genuen eta



Anger taldea.

“Disko berriarekin sentsazio ona izan dugu zuzenekoetan, eta diskoak zuzenean potentzia hartzen duela ikusi dugu”

emaitza polita izan zuen. Disko honetarako konposatzen ari ginela, guk sortutako beste kantuekin bat zetorrela ikusi genuen. Ondorioz, grabatzea eta sartzea erabaki genuen.

Taldean hasiera-hasieratik zaude eta urte hauetan guztietan kontzertu mordoa eskaini duzue. Berezienetako bat aipatuko al zenuke?

E.Z.: Pertsonalki ez naiz ikono zalea. Zentzu horretan, ez daukat talde bat, kontzertu bat... Esate baterako, azkeneko kontzertua Berri Txarrak taldearekin eman genuen Bilbon eta oso kontzertu polita izan zen; motza baina zuzena. Jende asko zegoen eta gure sentsazioak onak izan zirenez, gustura geratu ginen. Bat aipatzearren, oraintxe horixe aipatuko nuke. Baina, esan bezala, ez naiz ikono zalea.

Hala ere, nahiz eta lehenengo aldia ez izan, Andoainen jotzea zuretzat berezia

izango da, ezta?

E.Z.: Bai. Ilusio gehiago egiten du gertuko jendearen aurrean jotzeak. Gainera, hemen ere zale batzuk baditugu; azken diskoa gustatu egin zaie eta beraien erantzuna iritsi zaigu. Horregatik, beraiei ere gure diskoa zuzenean erakutsi nahi diegu eta espero dugu gustatuko zaiela.

Dena den, orokorrean, guretzat beste kontzertu bat bezalakoa izango da. Dena ematera eta gozatzera joango gara. Espero dut jendea inguratuko dela eta guztiek izango dutela disfrutatzeak aukera.

Niña Coyote eta Chica Tornadorekin Bilbon jo zenuten, Ingo Al Deu?-ko taldekideak herrikideak dituzu... Zer moduzkoa da beraiekin duzun harremana?

E.Z.: Batera jo genuen, baina ez genuen harremana asko sakontzeko aukerarik izan. Ez gara asko ezagutzen. Ingo al Deu?koekin, ordea, badaukak harremana eta sekulako poza ematen dit beraiekin eszenatokia elkarbanatzeak. Gogoz nago.

Anger-ek 17 urte daramatza, aita izan berri zara. Nola ikusten duzu taldearen etorkizuna?

E.Z.: Disko honekin oso gustura gabiltza. Lan egiteko orduan eta musikalki oso eroso gaude; baina, bestetik, ikusten dugu gure bizitza pertsonalek beren ziklo naturala jarraitzen dutela eta etorkizunean beste egoera batera pasako garela taldearekin. Garbi dugu ez dugula bukatutzat emango, baina intentsitatea asko jaitziko da. Oraingoan, urte honetan abendura arte ahalik eta kontzertu gehien eskainiko ditugu, eta ondoren, erritmoa lausotuko dela aurreikusten dugu. Ez dut amaiera data bat jarri nahi, baina printzipioz, eskainiko ditugun zuzenekoak 2015ean zehar izango dira.

Nola biziko dituzu aurtengo Sanjuanak?

E.Z.: Aurtun egunez gozatuko ditut festak. Gure kontzertuaz gain, Axeri dantzatan aterako naiz hirugarren aldiz; egun horretan asko disfrutatzen dut. Bestela, ez dut ezer berezirik egingo; kalean ibiliko naiz bertako giroa ikusiz.



AITA LARRAAMENDI IKASTOLA

Txistoki pasealekua, z/g
20140 - Andoain
Tel. 943 593 525
andoain@ikastola.eus
www.andoainikastola.eus



IKASTOLENTEKARTE

**JAIETAN
ERE
EKIN
EUSKARAZ**

San Joan jai zoriontsuak opa dizkizuegu





Añaxa

**Eguneko menua
Plater konbinatuak
Razioak
Plater bereziak**


**Ondo pasa
jaietan!**

**Martin Ugalde, 4-behea
943 50 83 52**

Sanjuanak Andoainen 2015, egitaraua



Ekainak 20, larunbata. 12:15. Soinuak musika eskola.



Ekainak 20, larunbata. 12:00. Kantu kalejira Goikoplazan hasita.



Ekainak 20, larunbata. 14:00. Bazkaria Goikoplazan.

Ekainak 19, ostirala

Jaien hasiera, txupinazoa

- 17:00 Ping Pong txapelketa Agustin Leitzan.
- 18:00 Buruhandi eta Erraldioen kalejira, koadrilek eta haur eta gurasoek parte hartuz.
- 19:00 Kartel lehiaketako sari banaketa eta erakusketaren irekiera Uri-gain etxean.
- 19:45 Basterotik Goikoplazara Udal Musika Eskolako Banda.
- 20:00 Ainhoa Aiertzaren pregoia udaletxeko balkoitik eta txupinazoa, ondoren Bandak "Andoain" mar-txa joko du.
- 20:15 Txistularien kontzertua.
- 22:00 Pilota partidak Arraten:
 - 1- Iturzaeta Memorialeko Finala.
 - 2- Profesional mailako partidak, Munduko txapelketaren erreban-txa.
- 23:00 Kontzertua: Anger, Niña Coyote eta Chico Tornado eta Ingo Al Deu Nafarroa Plazan.

- 17:00 Dirt Jump lehiaketa Plazaolako bizikleta gunean. Afizionatuak.
- 17:30 XVI. Bizikleta festa Goikoplazan. Eguraldi txarrarekin Ondarreta ikastetxeko patioan. Ondoren, Apar festa Goikoplazan.
- 18:00 Dirt Jump lehiaketa Plazaolako bizikleta gunean: Pro maila. Bu-kaeran, sari banaketa ekitaldia.
- 18:30 San Juan jaietako IX. Bikoteen Kross Mistoa. Irteera eta helmuga Goikoplazan. 5 kilometrotako ibilbidea.
- 20:00 Udal Musika Eskolako Bandaren kontzertua Goikoplazan.
- 22:30 Zezen-suzkoa Goikoplazan.
- 22:30 Bakartxo eta Josebaren dantza es-kolaren erakustaldia Goikopla-zan: Tangoa, salsa, funky, sabel dantza, chachacha eta zumba.
- 23:30-00:45 Son Kandela, dantzaldia Goikoplazan.
- 23:00 Vendetta taldearen kontzertua eta, ondoren, Gozategi Nafarroa Plazan.

Ekainak 20, larunbata

Herri bazkaria

- 09:00 Usakume tiroketa Pagamendin.
- 10:30 Pilota partidak Arraten: Zesta, haur finalak.
- 11:30 Pilota partidak Arraten: Esku pi-lotako haur finalak.
- 11:30-13:00 Dirt Jump lehiaketa Plazaolako bizikleta gunean.
- 12:00 Kantu kalejira eta txalaparta ibil-taria, Goikoplazatik hasita. 11:30etatik gazte eta helduentza-ko txalaparta tailerra.
- 12:15 Soinuak Musika Eskolako ikasle-en eta Akorde-On taldearen Kontzertua Goikoplazan.
- 14:00 Bazkaria Goikoplazan: Txuleta ja-na.
- 16:00-17:00 Dirt Jump lehiaketa Plazaol-an, prestaketa saioak.
- 16:30-19:30 2014ko Sanferminetan sa-ria irabazi zuen txaranga.
- 16:30 Pilota Arraten: Zesta Punta eta Palako umeen eta nagusien fina-lak. Palako finala nagusien mai-lan.

Ekainak 21, igandea

Herri kirol erakustaldia

- 11:00-13:00 Xake saioak Goikoplazan.
- 12:00 Udal Musika Eskolako ikasleen Mugaz taldea eta Azelain elkartea-aren musika eta dantza emanal-dia Goikoplazan.
- 16:00 Gipuzkoako txirrindularitza itzu-liaren irteera Goikoplazatik.
- 17:30 Herri kirolak Goikoplazan. Aiz-koran Joxe Mari Olasagasti eta Xabier Zaldia, Donato Larretxea eta Fausto Mugerzaren aurka. Harria jasotzen Estitxu Alman-doz eta Jose Ramon Izeta. Tron-tza, txingak eta lokotx biltzea : Nerea Sorondo eta Itxaso Onsa-lo.
- 19:15 "Txatarra" kaleko zirku eta an-tzerki ikuskizuna Nafarroa Pla-zan.
- 20:00 Sound System Gauda Nafarroa plazan: Dreadrive, Righteous Way.
- 20:30 Triana dantza taldearen emanal-dia Goikoplazan.
- 22:30 Zezen-suzkoa Goikoplazan.

Olloki

- Kafetegia
- Ogitar-tekoak
- Razioak
- Plater konbinatuak
- Pizzak

Irailetik ekainera, ostiral gauetan monologoak egiten ditugu hilean behin

Tel: 943 300 603 Goikoplaza, 6-7 Andoain

2015

KeiNU

ERA GUZTIETAKO BORDATUAK

Kale Nagusia, 45
ANDOAIN
943 02 96 76 / 637 28 32 24
keinu.andoain

ONDO PASA SANJUANETAN!

Ekainaren 19tik 24ra ospakizun ugari

Ekainak 22, astelehena

Funk eta Hip hop saioa

- 11:30 Kulki jolasak Goikoplazan.
- 14:00 Aiton-amonen bazkaria Basteron.
- 17:00 Funk, Hip Hop eta La Salle Berrozpe ikastetxeko dantza jazz emanaldia Goikoplazan.
- 18:00 Egurrezko joko erraldoiak Goikoplazan.
- 18:15 Pirritx, Porrotx eta Marimotots pailazoak Goikoplazan.
- 19:00 Kontzejupeko pilota txapelketa.
- 19:30 Batukada feminista Goikoplazan hasi eta Nafarroa plaza bitartean ibiliko da, kalez kale.
- 22:30 Zezen-suzkoa Goikoplazan.

Ekainak 23, asteartea

Haur danborrada, soka dantza

- 11:30 Haur parkea Goikoplazan: jokoak, puzgarriak, ludoteka, oztopozko ohea, pilotadun etxea.
- 17:00 Haur parkea Goikoplazan. Eguraldi txarrarekin Ondarreta ikastetxeko patioan.
- 18:00 Haur danborrada La Salle-Berrozpe, Aita Larramendi eta Ondarreta ikastetxeetako ikasleek hartuko dute parte, alkate txikia eta herriko ordezkariak buru izango direlarik.
- 19:00 Gora Kaletxiki txaranga.
- 19:30 Alberto Agirre eta Udal Musika Eskolako abesbatzen emanaldia San Martin Parrokian.
- 20:00 On Pedro Aizpuruaren Salbe Gorrena San Martin elizan Alberto Agirre abesbatza eta Udal Musika Eskolako abesbatza.
- 20:15 Alkatea eta udalbatzaren Soka-dantza Goikoplazan.

Segurtasun neurriak Correfoc ikuskizuna ikusteko

Pirotekniazko ikuskizuna ibiltaria da, beraz, ezustekorik egon ez dadin Udalak segurtasun neurriak hartzeko deia egin du:
Saltoki eta tabernak:
1. "Leiho, ate eta erakusleihoetako kris-

- 21:30 Dultzaineroen kalejira Goikoplaza inguruan.
- 22:00 Txistulari Bandaren kalejira San Juan zortzikoa joz. Ibilbidea: Etxeberrieta, Zumea, Kale Nagusia, Goikoplaza.
- 22:30 Suziri, txalaparta eta kanpai-errepika: San Juan sua.
- 22:45 Agustin Leitzaren danborrada.
- 23:00 Nemux diskoteka Nafarroa Plazan.
- 23:30 Demodé Quartet taldearen kontzertua Goikoplazan.

Ekainak 24, asteazkena

San Juan eguna

- 10:30 Artisautza feria Goikoplazan.
- 11:00 Meza nagusia San Martin parrokian.
- 12:00 Axeri dantza, dantza herrikoa Goikoplazan.
- 12:15 Gora Kaletxiki Txaranga Goikoplazan, eta kalez kale.
- 17:00 Artisautza feria Goikoplazan.
- 18:00 Bote luzea pilota joko zuzena Goikoplazan. Andoaindarrak 400 programaren barne aspaldi jokatzeko zen pilota moduaren erakustaldia.
- 19:00 Dantzaldia: Laket Nafarroa Plazan.
- 19:30 Bertso saioa Goikoplazan: Aitor Mendiluze, Sustrai Colina, Maialen Lujanbio, Unai Iturriaga, Alaia Martin, Agin Laburu. Gaijartzailea: Jon Beloki. Eguraldi txarrarekin Basteron.
- 22:30 Visitants Teatre taldearen "Rural-foc" pirotekniazko kalejira. Correfoc baten antzera, Juanita Alkain plazatik abiatu eta Kale Nagusian gora, Goikoplazaraino.



Ekainak 22, astelehena. 18:15. Pirritx, Porrotx eta Marimotots Goikoplazan.



Ekainak 23, asteartea. 20:15. Udalbatzaren soka-dantza Goikoplazan.



Ekainak 24, asteartea. 22:30. Rural foc piroteknia ikuskizuna.



Ondo pasa festetan!

arruti

Etoko obradorea:
pastelak, pastak,
ogi bereziak...

Zumea 18, 943 593 777 – 20140 ANDOAIN
arrutigozotegia@hotmail.com

Funky eta jazz kutsuko dantzak jaietan Andoaingo haur eta gaztetxoek eskutik

LEIRE ANDREU ETA MAIALEN PEREZ IRAKASLEEN ESANETAN, DANTZARIAK ILUSIOZ ETA EUREN ONENA EMATEKO PREST IGOKO DIRA TAULA GAINERA EKAINAREN HOGEITA BIAN.



Jazz kutsuko dantzak eskainiko dituzte Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntzako ikasleek.



Zumbarekin lotutako koreografiaren bat ere dantzatuko dutela aurreratu dute.

Funky-a eta jazz-a eskutik helduta etorriko dira Andoaingera. Izan ere, Sanjuanetako astelehenean, ekainaren 22an, Allurralde kiroldegian aritzen diren Funky Hip Hop eta La Salle Berrozpe ikastetxeko dantza jazz taldeek dantza emanaldia eskainiko dute Goikoplazan. Ikasturte osoan ikasitakoa jendarean erakutsiko dute eta bi taldeetako haur eta gazteak gogoz daude andoaindarren eta, batez ere, beraien gurasoen aurrean dantza egiteko.

Batetik, 12-16 urte bitarteko gazteek Funky-a dantzatuko dute. Kiroldegian ikasten ibiltzen diren bi taldeak aterako dira oholtza gainera, eta Zumbarekin lotutako koreografiaren bat ere dantzatuko dutela aurreratu dute. Bestetik,

HH4 mailatik LH4 mailara arteko La Salle Berrozpeko ikasleek jazz dantzak egingo dituzte. Ikasturtean zehar, talde bakoitzak hiru minutuko koreografia prestatu du eta familia egunean dantza-tu ondoren, Sanjuanetan oholtza gainera igotzeko garaia iritsi zaie.

Leire Andreu eta Maialen Perez aritzen dira jazz dantzen irakasle lanetan eta adierazi dutenez, haurrak ilusioz daude eta beraien onena eman nahi dute oholtza gainean. “Izugarrizko poza ematen die gurasoen aurrean dantzatzek. Hala, urduri, baina, aldi berean, gogoz daude”, nabarmendu du Maialenek. “La Salle Berrozperen egunean, eguraldia zela medio, ezin izan genuen dantza egin eta tristura handia hartu zuten. Haur asko negarrez aritu ziren”,

“Izugarrizko poza ematen die gurasoen aurrean dantzatzek. Hala, urduri, baina, aldi berean, gogoz daude”

adierazi du. Ordutik, Sanjuanak iritsi zain omen daude.

Orain bogan dauden abestiekin, zaharrenek Jazz dantzak Funky-arekin uztartuta egingo dituzte. Txikienek, ordea, dantza sinpleagoak ikasi dituzte. Urte guztian ikasturte amaierako emanaldi hauek buruan izan dituztenez, asko saiatu direla eta ondo dakitela uste du irakasleak.

DANTZA, LAGUNAK EGITEKO AITZAKIA

Bai kiroldegian, bai eta La Salle Berrozpen ere, taldean aritzen dira dantzan eta lagunak egiteko aukera ederra da Andoaingo gaztetxoentzat. Entseguetan oso giro ona izaten dutela eta lagun artean dantzatzeko aukera aparta dela uste du Maialenek. Gainera, dantza taldean ibiltzea sozializatzeko modu eraginkorra dela ikusten du: “Lan taldean integratzek, lotsa galtzen eta harremak egiten laguntzen die”. Helburu nagusia haurrak ondo pasatzea dute; honenbestez, batzuetan dantza alde batera utzi eta jolasak egiten dituzte. “Erabat dantzan aspertu egiten dira, beraz, ondo pasa dezaten, ekintza ezberdinekin nahasten saiatzen naiz”, azaldu du irakasleak.

Andoaingo LHI Lanbide Hastapeneko Ikastetxea

15-17 urte bitarteko gazteei zuzendutako prestakuntza programa:

- **Oinarrizko Lanbide Heziketa** (Erdi-mailako ikasketekin jarraitzeko aukera)
 - Metalezko elementua fabrikatzea (Soldadura eta galdaragintza)
 - Ibilgailuak mantentzea (karrozeria)

Matrikula ekainean zehar.
Azken eguna: uztailaren 21a

Olagain auzoa, 7 (Opua pabilloia) - 20140 Andoain
 Tel./Faxa: 943 300 816 - cip-lhi@andoain.org

Erraldoi txikia

LANDER FERNANDEZ ANDOAINGO ERRALDOI TXIKIA, JAIETAKO PROTAGONISTETAKOA DA.



Landerrek bere tamainara egokitutako erraldoia darama.

Lander Fernandez Mendikute zazpi urteko mutil koskorra da eta izugarrizko zaletasuna dauka buruhandi eta erraldoiekin. Bere neurrira egindako erraldoi txikian sartu, eta Andoaingo konpartsarekin kalean gora kalean behera ibili ohi da. Sanjuanetako hitzorduari ere ez dio hutsik egingo Landerrek.

Nafarroan oporrak igarotzen ditu familiarekin, eta jaiak ederki asko ezagutzen ditu. Hantxe piztu zitzaion buruhandi eta erraldoiekiko zaletasuna, markaz kanpokoa. "Iruñea, Lizarra, Gares eta Arangoitiko jaiak harrapatzen ditugu batez ere; herri horietan konpartsak kalera ateratzen direnean, haien atzetik ibiltzen gara. Arangoitin, nire erraldoia ateratzeko aukera edukitzen dut".

Asier, osaba, iaioa da eskulanetan eta hark moldatu zion erraldoia. Inoiz jaso izan duen oparirik kuttunena, zalantzarik gabe. "Gorputza berak egin zuen, eta burua, erosi egin genuen Iruñean; Nafarroako errege bat da. Erraldoiak ez du pisu askorik eta aisa eramaten dut. Osabak lau gurpil jarri zizkion, baina apenas erabiltzen ditut, kale-jirako azken aldera nekatuta sentitzen bainaiz bakarrik".

Landerrek Sanjuanetan, Santakrutze-

“Egunean batean Andoaingo konpartsan parte hartuko dut, buruhandi bezala”

tan eta inauterietan ateratzen du kalera erraldoia, batez ere. Andoaingo konpartsaren aurretik joan ohi da normalean. "Nire kezka konpartsaren aurretik noan ala ez jakitea izaten da. Bestelakoan, ondo pasatzen dut erraldoiaren barruan".

Arreta eragiten du Landerren erraldoiak, haur eta gaztetxoak hurbiltzen zaizkio: "Batzuk barruan sartu nahi izaten dute, eta beste batzuk argazkia ateratzeko eskatzen digute".

Bera bezala jarduteko beste haurren bat animatuko balitz Andoaingo konpartsarekin, ongietorria egingo lioke Landerrek. "Erregearen edo erreginaren erraldoiarekin etorriko balitz, bikote polita sortuko genuke, eta dantza eta guzti egingo genuke". Lander heldu izateko desiatzen dago. "Egunen batean Andoaingo konpartsan parte hartuko dut, buruhandi bezala. Etxean, Nafarroako Caravinagre eta Aragones izeneko pertsonaien buruhandiak dauzkat. Haiek jantzita aterako nintzateke".

Rural foc ikuskizuna

JAIARI AMAIERA EMATEKO KATALUNIAKO VISITANTS TEATRE KONPAINIAK KALE IKUSKIZUNA ESKAINIKO DU.



Juanita Alkain plazatik kalejiran abiatuko dira, Kale Nagusian gora, Goikoplazaraino.

Lurrari eta lurra landu duen gizakiari gorazarre egin nahi dio Andoainen ikusi ahal izango den kaleko ikuskizunak. "Rural foc ibiltaria da eta ikuslea iragane- ra bidaia egitera gonbidatzen dugu, zerealaren landaketa iruditatz harturik", horixe dio ikuskizunaren aurkezpen txartelak. Ikusle guztientzat eginikoa da, bi modutara parte har daitekeena: ikusle soil bezala edota parte hartzaile aktibo bezala.

Kalejira ekainaren 24an gaueko 22:30ean Juanita Alkain plazatik abiatuko da

Udalak jakinarazi duenez, kaleko su ikuskizuna gertutik jarraitu nahi duenari arropa bakeroa eta bururako estalkia eramatea gomendatzen zaio. Jai amaiera ikusgarria izango da.



Zerealaren landaketa irudikatuko dute su ikuskizunaren bitartez.

Zatoz jaietan!

AKER BELTZ

Taberna

Nafarroa plaza, 1-B

20140 ANDOAIN

☎ 943 300 846

STOP

LIBURUDENDA

Ondo pasa Sanjuanetan

Agustín Leitza: 27

943 591 603

20140 ANDOAIN

(Gipuzkoa)

JOSEBA

altzariak

Kaletxiki, 10 • ANDOAIN • Tel.: 943 590 761

- Somier elektrikoak
- Latexko koltxoak
- Altzari osagarriak

Ondo pasa festak!

FRANCISCO MENDIKUTE

HARATEGIA

URDAITEGIA

Kaletxiki, 15 ☎ 943 590 258 • ANDOAIN

Jai zoriontsuak opa dizkizuegu

- Esne produktak
- Hautatutako kontserbak eta kalitatezko okela, etab.

Laket erromeri taldea, herri afariaren ostean

HAMAR URTE BETEKO DIRA AURTEN LAKET ERROMERI TALDEA SORTU ZELA. ASKOTAN IZAN DIRA ASTEASUKO PLAZAN, ETA AURTEN ERE EZ DUTE HUTSIK EGINGO.

Festarik festa eta plazaz plaza, ibilbide luzea egin du dagoeneko Laket taldeak. Asteasun ere eskaini izan dute euren saioa, eta aurten, ekainaren 23ko herri afariaren ondoren arituko dira. Maitane Aierza asteasuarra taldeko kideetakoa da. “Duela bi urte ere herri afariaren ondoren aritu ginen. Afalostean, jendea kafea hartzen ari den bitartean hasten gara jotzen, eta horrek lagundu egiten du jai giroa pixkanaka pizten. Nolanahi ere, ez da erraza Asteasuko plazan jendea dantzan jartzea; plaza zaila izaten da hau. Joera horri buelta ematen saiatuko gara aurten ere, ea lortzen dugun”, azpimarratu du Maitanek.

ALDAKETAK

Gogotsu eta berrikuntzekin dator Laket taldea. “Duela bi urte tronpeta eta tronboia sartu genituen taldean. Bost kide izatetik zazpi izatera pasa ginen eta aldaketa horri esker talde osatuagoa dela esango nuke. Beti saiatzen gara gure musikari ukitu berria ematen eta horretan saiatuko gara Asteasuko saioan ere. Kantu berriak ere izango dira tartean. Urtebetez egon gara eszenatokietatik kanpo, eta itzuleran, gogotsu ekin diogu. Aurtengo hirugarren kontzertua izango da Asteasukoa. Herrian aritzeak urduritasun pixka bat gehiago eranstendio, baina urte asko daramagu oholtza gaineko jardunean, eta dagoeneko ohituta gaude horrelakoetara. Eguna iristeko gogoz gaude”, azaldu du Maitanek. Irurako pabilioi batean biltzen dira Laket taldeko kideak entseguak egiteko: “Astean behin elkartzten saiatzen gara. Urte osoan zehar maiztasun bera mantentzen dugu, eta horrek, berrikuntzak eta aldaketak egiteko aukera ematen digu”. Kontzertuak gerturatzen direnean ere, mantendu egiten dute entseguen maiztasuna: “Tamaina egokia aurkitu dugu, eta ederki moldatzen gara modu horretan”, gaineratu du Maitanek.

Laket taldeak ez du diskarik merkatuan, baina zenbait kantu badute grabatuta. Esaterako, Trikitixa elkarteak kaleratutako diskan parte hartu du



Trikitia eta panderoa izan ziren Laket taldearen iturburua. Zazpi kide dira egun.

Maitanek: “Hiru kantu berri prestatu eta grabatu genituen Laket taldeko panderojoleak eta biok”. Ekainaren 23an, euren musikaz gozatu eta dantza

saioa egiteko aukera eskainiko dute Maitanek eta taldekideek. Plaza giroaz gozatzeko aukera bikaina gerturatzen diren guztientzat.



Iñolaz taldeko kideak, Xexili egunean eskainitako emanaldian.

**“Beti saiatzen gara gure musikari ukitu berria ematen eta horretan saiatuko gara Asteasuko saioan ere”
Laket**

Juan Tapiaren ikasleek osatutako Iñolaz erromeria taldeak saioa eskainiko du San Pedro egunean, bertso saioaren ondoren

IÑOLAZ TALDEKO GAZTEAK, SAN PEDRO EGUNEAN

Juan Tapiaren ikasleek osatutako Iñolaz erromeria taldeak saioa eskainiko du San Pedro egunean, bertso saioaren ondoren. Hamasei urte inguruko gazteek osatzen dute taldea, Asteasu eta inguruko herrietakoak gehienak. Gogotsu ari dira musikari lanetan trebatzen, bai entseguetan, eta baita plaza ezberdinetan eskainitako saioetan ere.

Iazko Sanpedroetan eskaini zuten jendaurreko lehen saioa, eta gustura aritu ziren. Maria Beloki zizurkildarra taldeko abeslaria da hark laburbildu dituen eszenatokian bizitakoak: “Hasierako urduritasunak ahaztuta, nahiko lasai aritu ginen. Jaietako lehen eguna zen eta nahiko jende hurbildu zen plazara. Ordu eta erdiko saioa eskaini genuen eta jendea gustura egon zela iruditu zitzaigun”. Xexili egunean ere Asteasuko plazan aritu ziren Iñolaz taldeko kideak. Bi kantu eskaini zituzten, eta ikusle-en txalo zaparrada jasota amaitu zuten emanaldia.

Instrumentu ezberdinak tartekatuz, erromeria giroko musika jorratzen dute gehienbat Iñolaz taldeko kideek. Dantzarako aukera paregabea eskainiko dute, beraz.

Iturri-Ondo
Jatetxea
Jai zoriontsuak igaro
Tel: 943 691 331
20159 ASTEASU

ERAIKUNTZAK - ASFALTOAK
BIXENTE OTEGI LIZASO, S.L.
Jai zoriontsuak opa dizkizuegu
Elizmendi, 44
20159 Asteasu (Gipuzkoa)
Tel./Faxa: 943 690 178
bixenteotegi@terra.com

Juan Tapia trikitilaria, aurtengo pregoilari

FAMILIA ENTZUTETSUA DA TAPIATARRENA ASTEASUN. AITARENGANDIK HASITA, TRIKITIXA JOTZEKO OHITURARI EUTSI DIOTE ONDORENGO BELAUNALDIEK ERE. JUAN TAPIAK EMANGO DIE HASIERA AURTENGO SAN PEDRO FESTEI.

Ume zelarik, Eleuterio Tapia aitarekin, etxean bertan hasi zen Juan trikitixa jotzen ikasten. Txiki-txikitatik gustatu izan zaio trikitixa eta aitarekin batera erromeriatara joaten hasi zen gazte-txo zela. “Azkar hasten zen orduan. Gure aitak ohitura handia zuen, berarekin batera, saio osoa egin beharrean, bere anparroan, puxkaka aritzekoa. Oso ohitura ona zen, pixkanaka ikasiz joateko”, adierazi du Juanek. Urtetan ibili zen Juan aitarekin batera erromeriaz erromeria eta aita hil ondorenean, erabakia hartzeko garaia iritis ziotzaion: erromeriatan jarraitu edota irakaskuntzari eutsi. Bigarren aukeraren alde egitea erabaki zuen, betidanik gustatzen baitzaio irakaskuntza. Egun Usurbil, Beasain nahiz Asteasuko musika eskolatan aritzen da trikitixa nahiz panderoa irakasten, astelehenetik larunbata bitarte. 7 urtetik 18ra arteko ikasleak ditu batik bat, baina helduagoak ere biltzen zaizkio, “tartean, gaztetxotan trikitixa ikasten hasi eta utzi ondoren berriaz bueltatu direnak edota garai batean ikasteko aukerarik izan ez zuten jubila-tuak”. Trikitixa eta panderoak inguru honetan arrakasta izaten jarraitzen duela uste du asteasuarrak eta zeharo lanpetuta dabil-tza, nahiz eta lehen baino lan gutxi-xeago egiten dela dioen, “gazteek ekintza asko dituzte esku artean eta teknologia berriei ere denbora asko eskaintzen diete. Noski, trikitixa ondo jotzen ikasteko denbora behar da eta zaila da denerako tar-tea aurkitzea”, azaldu du.

ERROMERIA BIKOTETIK TALDERA

Trikitixa kalera ateratzeko moduan, aldaketa izugarria nabari du Juanek orain urte batzuetako egoerarekin alderatuta. Garai batean, plazaz plaza trikitilari bikoteak aritzen baziren, egun erromeria taldeak sortu baitira haien lekuan. Tapiaren ustez “polita da taldean kide gehiagoren artean lan egitea, lanerako beste giro bat sortzen baita. Musika eskolek ere asko bultzatzen dute gaur egun lan hori, horixe eskatzen baitute gazteek”. Usurbil eta Beasaingo musika eskolatan proba egin eta gero, iaz sortu zuen Juanek aurtengo



Juan Tapiak bere familiak bizi duen trikitiarekiko tradizioari eutsi dio.

Sanpedroetan bigarrenaz Asteasuko plazan emanaldia eskainiko duen Iñolaz erromeria taldea. Elkarriketatuaren hitzetan, taldekide guztiak elkarrekin entseguak antolatzea izaten da zailena, gainerakoan primeran moldatzen dira. Dударик gabe, gazteentzat oso motibagarria da halako taldeetan jotzea, eta zer esanik ez herrian bertan.

FESTETAKO PREGOILARI

Iñolaz taldearen emanaldiaz gain, Sanpedro hauetan trikitixai eta pandero jaialdia eskainiko dute Tapiaren Asteasuko eskolako kideek eta gainerako herriko musikariekin batera, urtero legez, kalejira ere

egingo dute herrian barrena. Sanpedro jaietan lanpetuta ibili ohi da Juan, baina gustura, “gure artean oso giro ona dugu eta oso garrantzitsua da hori, modu horretan errazago bideratzen baitira ekimenak”. Aurtengo jaietan, gainera, pregoilari izatea ere egokitu zaio Juani. Berak botako du jaietako hasiera emango dien suziria. Hasieran proposamena harrituraz jaso bazuen ere, orain oso gustura sentitzen dela aitortu du, “ohorea baita zurekin gogoratzea. Udaletxeko balkoian ni egongo banaiz ere, Asteauko eskolako kide guztien izenean hartuko dut parte, guztion artean girotzen baitugu herria”, zehaztu du.

“Udaletxeko balkoian ni egongo banaiz ere, Asteauko eskolako kide guztien izenean hartuko dut parte”

POLAROIDAREKIN

Sanpedrozalea al zara?

Gustuko ditut herriko festak. Urteak atzera, Asteasun aparkaleku gutxiago zenean, gogoa dut nola Errotara bitarte aparkatzen zituzten kotxeak. Festa-leku ona izan da beti Asteasu eta niri beti gustatu izan zait parte hartzea.

Egitarauko zein ekimenek erakartzen zaitu batik bat?

Musika, bertsoak, dantza emanaldiak edota herri kirolak ikustea gustatzen zait gehien orain.

Zer diozu jaietako egitarauaren inguruan?

Jai egun dezente dira eta nire gusturako nahiz gazteei begira, ekintzaz ondo osatuta daudela iruditzen zait.

Eguna ala gaua nahiago?

Garai batean gaua gehiago gustatzen zitzaidan. Gaur egun eguerdi partea edota arratsalde-ilunabarra. Gauez, berriz, garai bateko ordutegia: ordu txikiatarako etxean, hurrengo eguna ere aprobetxatu ahal izateko.

Jaietan jateko? Eta edateko?

Berdin zait ogitarteko bat bada ere, baina herrian bertan zer edo zer jatea gustatzen zait, festa giroan ibiliz. Hori bai, ahal dela, eserita! Edateko, ardo beltza edo gorria eta ondoren kafe-txo, patxaran koparekin.

Herritarrei mezuren bat?

Bakoitzak gogoko duen arloan, jaietan parte hartzeko esango nieke. Eta kalera atera daitezela. Trikitilari edo musikari naizen aldetik, azken aldia plazan dantza gutxi egiten dela uste dut eta dantza egitera animatuko nituzke herritarrak. Berdin tabernara joandakoan kantatzera ere.



Sanpedroak Asteasun 2015, egitaraua



Sorginen jaitsiera ekainaren 26an izango da.



Ekainaren 28an herritarren arteko desafioa.

Ekainak 20, larunbata

Jaien atarikoa

- 16:30** Karta txapelketak frontoian.
Mus txapelketa herrikoia: 16 urte arte eta 16 urtetik aurrera.
15:45 - 16:15 Izen-ematea.
16:20 Zozketa.
16:30 Txapelketaren hasiera.
Oharra: Orduz kanpo ez da izen-ematerik onartuko.
Bikoteko bat herrikoa izango da.
- 16:30** Txintxon txapelketa herrikoia 16 urtetik gorakoentzat. Txintxon txapelketan parte hartzeko herrikoa izan beharko da.

Ekainak 23, asteartea

San Juan bezpera

- 21:00** San Juan sua, tradiziozko dantza.

Ekainak 26, ostirala

Haurren eguna

- 11:00** Haurren krosa. Marrazketa lehiaketa.
- 11:30 - 14:00** Haur parkea frontoian.
- 14:00** Haurren arteko bazkaria plazan.
- 15:00 - 17:00** Haur parkea frontoian.
- 17:30** Haurrentzat zezen txiki eta poneyak.
- 17:30** Asteasuko gazte asanbladak antolatuta: fronteniseko finalak.
- 18:15** Arkupeko txapelketako finala.
- 19:00** Aitzondo txirrindulari elkarteak antolatuta: pala txapelketako finala.

- 20:30** Sorginaren jaitsiera.
Txupinazoa Juan Tapia trikitilari eta trikitixa maixuaren eskutik.
Kalejira buruhandiekin.
- 21:30** Herri afaria eta erromeria: Laket.

Ekainak 27, larunbata

Koadrilen eguna

- Eguerdian triki-poteoa.
- 14:30** Koadrilen arteko bazkaria.
- 18:00** Musika kalean Ttek elektrotxa-rangarekin.
- 19:00** Atzapar pilota klubak antolatuta: Nesken pala txapelketaren finalak. Alebinak: Elena Herrero-Maddi Urkola. Infantilak: Emily Otegi-Uxue Aranburu.
Esku pilota txapelketaren finala. Alebinak: Ugaitz Usabiaga-Eneko Juanena.
- 20:00** Ikurriñari omenaldi ekitaldia.
- 23:00** Kontzertuak: Lain, En Tol Sarmiento eta DJ Bull.

Ekainak 28, igandea

San Pedro bezpera

- Eguerdian patata tortilla txapelketa eta sagardo dastaketa: Sarasola, Etxeberria, Zabala, Aburuza eta Urdaira.
- 18:00** Herri kirolak herrikoen artean.
- 19:00** Dantzariak: Asteasu, Larraul eta Adunako dantza eskolak. Oinkari dantza taldea. Ondoren: Musika plazan Trakets taldearekin.
- 23:00** Trakets taldea plazan.

Ekainak 29, astelehena

San Pedro eguna

- 10:00** Diana.
- 11:00** Meza nagusia. Ondoren Elizmendin: Hamaiketakoa, Soka Dantza.
Pilota finalak. Aurrebenjaminak: Aimar Segurola - Manex Usabiaga. Benjaminak: Alex Zeberio - Alain Balsera.
- 17:00** Haurrentzat Obaba kalean piratak eta apar festa.
- 18:00** Kantaldia: Bortzirriako Beltxaren bikotea. Ondoren Asteasuko musikarien kalejira.
- 22:30** Bertso saioa: Bertsolariak: Sebastian Lizaso, Amets Arzallus, Amaia Agirre eta Unai Agirre. Gai-jartzailea: Haritz Mujika. Erromeria: Iñolaz taldea.

Ekainak 30, asteartea

Jubilatuen eguna

- 11:00** Meza. Ondoren Aitzondok jubilatuei eskainitako hamaiketakoa.
- 13:00** Herri kirolak: Harrijasotzaileak: Izeta II eta Aimar Irigoien. Aizkolariak: Jon Irazu eta Ugaitz Mugerza (II).
- 14:30** Jubilatuen bazkaria frontoian. Bertan izango dira: Zapre eta Zaharra trikitilariak. Telleria eta Zeberio bertsolariak.
- 18:00** Musika jaialdia plazan. Asteasuko trikitixa eta pandero eskola. Ondoren, Sorginaren igoera.

Ondo pasa festetan!

TRANSPORTES
akunza

Eguneroko zerbitzua Bizkaiara

609 434 910 - 609 401 884 - Tel.: 943 693 212 - Faxe: 943 694 924
www.transporteslakunza.com - info@transporteslakunza.com
A Industrigunea - 16. pabilioia, 20159 ASTEASU
52 P.K., 20150 AMASA-VILLABONA

JOXEAN
HARATEGIA

Baserriko haragia
Urdaitegi berezia

Bulandegi
bidea,1. Zizurkil
943 696 242

OGI ZURI **OGI GOXO**

OKINDEGIA, S.L.
Lizarra-etxea, 32. Elizmendi auzoa. ASTEASU ☎ 943 691 896

OGI-ZURI
Bulandegi bidea 1-3. ZIZURKIL ☎ 943 691 000

OGI-GOXO
Kale Nagusia, 26. AMASA-VILLABONA ☎ 943 693 294

FESTAK ONDO IGARO!

Ogi berezi eta artesanak - Etxerainoko zerbitzua

Patxine jatetxea

Ondo pasa festetan!

Gure berezitasuna:
EUSKAL SUKALDARITZA
ETA ETXKO POSTREAK
Errementari,1 - ASTEASU
Tel.: 943 69 10 25

ADOS


Gora Sanpedroak!
Ondo pasa jaietan!

ADOS MUNTAIAK, S.L.
Asteasuko Industrialdea
A gunea-15, 20159 Asteasu
Tel.: 943 694 384
Faxe: 943 694 375
info@adosmuntaiak.com
www.adosmuntaiak.com

HITZ-GEZIDUNAK



HITZ KATEATUAK



Koka itzazu diagraman honako hitz hauek:

8 hizki

Akastuna
Atabalak
Aukerako
Azkarrak
Bilakatu
Ibaiertz
Mizpirak
Salaketa

7 hizki

Ahaidea
Andana
~~Elokatu~~
Emaztea
Ikasiak
Sakelak

6 hizki

Aitona
Alabak
Ararat
Atondo
Baleak
Belaze
Ebatsi
Erritu
Hitsak
Lapats
Zuloak
Zutabe

5 hizki

Ahari
Solas

3 hizki

Ala
Ale
Ana
Are
Bai
Dar
Doi
Ert
Eta
Kai
Pil
Ron

4 hizki

Adar
Apal
Arto
Bart
Laia
Zira

HIEROGLIFIKOA



Irratiko esatari eta telebistako aurkezlea

ERANTZUNAK



Garagardo azoka



Mahaiak iendez beterik azokako gaueetako batean.

Antolatzaileak oso pozik daude aurtengo garagardo azokara hurbildutako jende kopuruarekin. Pozik daude ere

ekitaldi osagarrietan parte hartze handia izan zelako, bereziki Arrate pilotalekuko ekitaldietan.

Nazioarteko rock doinuak



Bertako eta kanpoko musika-
riez gozatzeko aukera izan
zen beste behin ere Nafarroa

plazan egiten den Rock jaialdian. Gaua europæan igarozen, zoritxarrez.

Katramilaren saioa



Iparragirre garai bateko zinema aretoa gogora ekarri zuten.

Katramila antzerki taldeak ikasturte amaierako antzezlan jendaurrean erakutsi zuen.

Hizpide izan zuten 36ko Gerra aurreko eta ondorengo Andoaingo antzerkigintza.



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,
POLÍTICA LINGÜÍSTICA Y CULTURA

HOGAR EXTREMEÑOREN KULTUR ASTEA

Dantzan eta bertsoetan amaiera eman zioten kultur asteari

Kultur Astearen amaierako ospakizunean bertsolari gazteek ez ohiko saioa eskaini zuten, euskara eta gaztelania tartekatuz:

*Gu gera Eñaut, Ahizpea ta Eneko
eta bagaude gustora,
jakin nahi degu bertsolariak
nun dagon Extremadura.*

*Zeinen ezberdin eta zein antzeko
zuen ta gure kultura,
aspalditik lotuta daude ta
Andoain ta Extremadura.*

*Os preguntareis de que va esto
cinco personas cantando,
si pensabais que estaba preparado
estamos improvisando.*



Garikoitz Hurtado Hogar Extremeño elkarteko lehendakariak aurkeztu zuen jaialdia.



Andoaingo Triana taldeko dantzari txikiak, atzean abesbatza lagun zutela.



Zuena elkarteko kideek sevillanak dantzatzeko jardun zuten.



Triana musikariak eta abesbatza Basteroko taula gainean.

PARTAIDETZAKO AURREKONTUAK BURUNTZALDEAN



Udaberrian Urnietan egin zuten bilera, Lekaion.

Ekainean amaitu da aurrekontu parte hartzaileen prozesua Buruntzaldean. Azken batzarra Hernanin egin zuten eta bertan prozesu osoan jasotako 72 proposamenak babestea adostu zen. Sustatzaileek adierazi dutenez, “parte hartze prozesu honen diseinuak hala eskatzen duenez, jarraian aipatzen direnak lehenetsi ziren”. Beraz, hauek dira eskualdean lehenetsi diren proposamenak:

- Eskualdeko Garapen plana modu parte hartzaileen burutzeko prozesua.
- Irisgarritasun azterketa eta ekintza plana eskualdean.
- Ekonomia berdearen inguruan lanpostuak sortu: Birziklapenarekin lotura daukan enplegua...
- Nekazaritza ekologikorako kooperatiba.

- Eskualdeko baserritar eta nekazarien ekoizpena eta kontsumoa sustatu.
- Erosketetako biltegi zentrala Buruntzaldean, ekonomia Sozialetan irizpidetan oinarrituta.
- Behar bereziak dituzten umeentzako diziplina anitzeko errehabilitazio zentro bat eraiki.
- Ezgaitasuna daukaten pertsonentzako gelto-kiak eta busak egokitu.
- Buruko gaixotasuna duten pertsonentzako ekintza propioak edota lan-proiektu bat gauzatu.
- Buruntzaldeko emakume etxe-langile etorkinekin komunitate esku-hartzea.

Hilabetez Andoainen, Urnietan eta eskualde osoan aurrekontu parte hartzaileak lantzeko bilera erronda, beraz, ondorioekin amaitu zen.

POSTONTZIA

Pentsiodunen elkarteak Udal hautagai berriei

EUSKAL HERRIKO PENTSIODUNEN ETA ADINEKO PERTSONEN PLATAFORMEK GURE HIRI, HERRI ETA DIPUTAZIOAK GOBERNATZEKO AURKEZTEN DIREN HAUTAGAIEI GURE ALDARRI ETA PROPOSAMENAK ADIERAZI NAHI DIZKIEGU.

Euskal Herriko adineko pertsona eta pentsiodunak gure herriko populazioaren laurdena baino gehiago gara eta, hala ere, gure arteko asko eta asko bazterketa egoeran bizi gara, ekonomikoa zein soziala. Madrilgo gobernua, Euskadiko Erkidego Autonomia eta Nafarroako gobernua inposatzen ari zaizkigun politika neoliberaletan borroka gogorren bidez lortutako eskubideak kentzea lortu dute eta bidegabekeria sozial handiko egoerara eramaten gaituzte.

Pentsioen igoera zikoitzak, medizina berriro ordaindu beharrak, oinarritzko zerbitzuen tarifen igoera eskandalagarriak hala nola gas, argi, ur eta jestio pribatuak eta halaber zerbitzu geriatriko, etxeko laguntza eta eguneko zentroen zerbitzuak garestitzeak ekarri dute oso urte gutxitan gure bizi kalitatea gutxitu hondatzea, momentu honetan gure kolektiboa osatzen duten pertsonen artean pobrezia eta eskusio egoerak nabarmen direlarik.

Egun hauetan aurkezten ari diren hautagai askok esango digu Udalen eta Foru Aldundien bidez ezin dela asko egin hau guztia konpontzeko, baina guk, Euskal Herriko Plataformetako emakume eta gizonezkoek, baietz uste dugu, pertsonen ongizatea pertsonengandik beraingandik hasita erabaki eta kudeatu behar dela eta horregatik uste dugu herriek eta hiriek erantzukizun handia dutela.

Egoera honen aurrean, guk, gizon-emakumeok proposatzen dizuegu:

Programa eta jardura municipal eta foralak burutzea bizitza eta zahartzaroa duintasunez bizi ahal izateko bermea segurtatuz. Eta gure presentzia zerbait aportatzeko izan dadin, hautagaiei dei egiten diegu berenak bezala har ditzatela gure proposamenak, hots, hurrengoak:

Pentsiodun eta adineko pertsonen Kontseilu Municipal eta Foralak sortzea, non parte hartu ahal izango duten nahi duten elkarte eta kolektibo guztiek eta bertatik demokratikoki burutu ahal izatea kontseiluetan erabakitzen diren jarduerak. Proposatzen dugu ahalmen programak bideratzea bereziki emakumezkoen zuzenduta, beroietan parte eraginkor izan daitezen.

Udal eta erakunde foralen bidez bizi-baldintza duin eta autonomoak bermatzea. Honetarako pertsona heldu eta pentsiodun kaltetuenen baldintza ekonomiko eta sozialaren azterketa eta etengabeko jarraipena egin beharko da, horretarako bideratuta dauden laguntzak jasotzeko eskubidea erabili ahal dezaten, eragozpen burokratikoak eliminatuz, beraiei informazioa pertsonalki emanez eta dirukopuruak areagotuz, geroz eta pertsona gehiagok izan dezaten onura, eta informazio eta harreman guztiak euskaraz ere burutu ahal izatea bermatuz.

Bereziki laguntzak areagotzea adineko pertsona eta pentsiodunek beren etxea berotu ahal dezaten, behar duten ura erabili, etxeetan beharrezko obrak egin, garraio publikoaz baliatu edota nahi duten aisialdiarena, kultur edo formazio ekintzetara joan ahal izan dezaten.

Esan ahalko digute pentsioen igoera, edo kalitatezko osasun sistema baliatzea udal kompetentziatik urrun gertatzen direla, baina posible da udal zergak jaitsiz edo eliminatuz, hala nola kontribuzioa, zabor-biltzearena, estolderi zerbitzuarena; eta herri, bailara eta lurralde historiko bakoitzeko osasun zerbitzu municipalak behar bezala koordinatuz, honela era solidarioan osasun tratamenduak eta zerbitzuak etxe guztietara iritsi daitezten.

Adineko pertsonen eta pentsiodunek eskubide osoa dugu gizarte ingurune batean behar bezala artatu eta zainduak izateko eta horretarako proposatzen dugu Euskal Herriko Mendekotasun Lege baten sorrera bultzatzea bizikalitatea autonomiaz eta kalitatez bizi ahal izateko.

Gure herriko populazioaren laurdena baino gehiago gara eta, hala ere, gure arteko asko eta asko bazterketa egoeran bizi gara, ekonomikoa zein soziala

Honela bada, Gizarte Zerbitzuen kudeaketa publikoa, hala nola geriatrikoak, eguneko zentroak, etxerako laguntza, desplazatzeko laguntza puntualak... arreta azkarago eta hurbilagoa izan dadin eta baliabide ekonomikoak hobeto kudeatzeko.

Beharrezkotzat jotzen dugu etxe egokitu eta babestuak eraikitzea adineko pertsonen eta pentsiodunek baliatu ahal ditzaten.

Adineko pertsonentzat tratu egokia bermatu beharra dago eta horretarako pertsona zaindariantzat formazio eta laguntza ikastaroak antolatzea proposatzen dugu.

Halaber exijitzen dugu aparteko sentikortasuna edukitzea ezein emakumezko ez dezan jasan inolako tratu txarrik, herri edo hirietan honelako egoerak detektatzeko ahaleginak eginez.

Azkenik proposatzen dugu aisialdi, gizarte erlazio eta formaziorako programak sortzea. Hauek publikoak izan daitezela, iritsi-erazak, doanekoak eta euskarazkoak, gure bizitzako etapa hau aberasgarria eta pozgarria izan dadin.

Gure agerpen honetan ezin ditugu ahanzi askatasunik gabe dauden pertsona guztiak eta beren adin zaharrenean prekaritate gogorrean aurkitzen direnak.

Guztientzat sentikortasun eta arreta berezia eskatzen dugu. Hauek dira gure proposamenak laburbilduta. Hemen gaude udal eta diputazio berrietan karguak hartu nahi dituzten hautagai guztiek gurekin batera gauzatu ditzaten. Horregatik konpromisoa hartzen dugu gure aportazioak kontuan janzaz burutuko den lanaren jarraipena egiteko.

Sinetsita gaude gure proposamenak berenak bezala hartuko dituztela eta Euskal Herriko adineko pertsona eta pentsionistek guztizko duintasunean bizi ahal izango dugula.

Itun dantza bukatu da



FELIPE IZAGIRRE • URNIETA

Hauteskundeak bukatu bezain laster, itun dantza hasi zen. Eta dantza, edozein dela musika, apropos da erakartzeko, seduzitzeko. Jakina, baziren zenbait bikote lehendik harremanetan hasita zeudenak; baina badirudi, gertakizunen arabera, harremana ez zegoela erabat bermaturik. Dantzaldietan beti egoten da jende multzoa eskuan zerbait hartuz honi eta hari begira: ezkutuko muxuak, arrumakoak eta jarrera goxoen testigu.

Ba, dantzaldi luzea izan da, hain luzea ezen azkeneraino suspertzen utzi baidakitzute. Hau honekin joango ote zen; bestea harekin; beste zenbait ez hirunaka bosnaka, zazpinaka askoren arteko orgiaren antzera. Euskal Herriari dagokionez, EAJ eta PSOE izan dira bikote gisa nabarmen deklaratu direnak; baina hor ibili dira azkeneraino bikotea hautsi dela esan eta handik bi egunera berriro bakeak egin dituztela esanez. Politikoei abilezia dute dantza eta antzerkirako, ez ba esan nahi dena azkeneraino. Eta etorri da ezkontzeko eguna eta zeremonia bitxiak suertatu dira. Zenbaitek baiezkua ematerakoan atzera egin eta ezkontzako banketea ozpindu dute.

ANDOAIN

Andoaingo kasua Estatu mailako berria izan da hemen eman baita, batik bat, istorioak kontatzen dutena, alegia bikotea aldarera joan eta han baiezkua eman behar zenean ezezkua eman eta atzera egin eta denak planto utzi. Zeremonia zuzendu behar zuena, Joseba Egibar andoaindarra, alegia, txundituta geratuko zen eta frustratuta, seguruenik, hain egun ederra zapuztuko zen eta. Berari larunbat goizean entzun nion bezperan Andoaingo EAJkoekin bildu zela eta, nahiz eta bertakoek zailtasunak agertu, leialtasuna mantenduko zutela, horretan seguru zegoela. Baina iritsi da eguna, zeremonia hasi da eta, hor, ateratzen da EAJko bat PSOeri bozka ematen ez diona. Eta, ondorioz, PSOE ez baina EHB Bilduk jasotzen duen alkatetza, lehen alkate zenak alegia. Aztertzeok izanen ziren hango aurpegiak, zeren komunikazio ezberbala ere ematen baita, eta, askotan, aurpegi batek mila hitz baino gehiago adierazten du. Hor ez da geratzen haserre: PSOE mendekua hartu eta Gasteizen ezezkua ematen dio EAJri eta Maroto bai Maroto ez, ba Maroto ez eta denak pozik. Bikoteen kontuak, haserreak, mendekuak; baina dirudie-nez, prest daude haserre utzi eta berriro elkarrekin joateko. Horregatik, badirudi gertaera horrek ez duela ondorio larriarik ekarriko. Gainontzean, Euskal Herrian aurrez ikusten zena gertatu da. Ni irudiko, normala Andoaingo EAJko

Aipagarrienak, eta niri, poz handiena eman didatenak, Madrid, Bartzelona eta Valentzia hiriburuetako kasuak izan dira

batek PSOeri bozka ez ematea. Herrian denak ezagutzen dira eta alderdi batekoak nahiz besteok elkarrekin bizi dira. Eta, honi kosta egingen zitzaion alderdiaren agindura makurtzea. Gainera, hor dago norberaren kontzientzia. Partidarekiko jarrera horiek fraide denboran bizitako gogorazten dit: alegia, nagusiek zioten egin behar zenuen nahita ez. Hori despersonalizazio hutsa da, gizakiok dohairik handiena askatasuna baita.

ESTATU MAILAN

Aipagarrienak eta niri, poz handiena eman didatenak, zergatik ukatu eta errespetu osoz diot, Madril, Bartzelona eta Valentzia izan dira. Bi emakume eta gizonezko bat. Bitxia da beste gauza askoren artean soldata jaitziko dutela esan dute. Ez da gutxi hasteko. Aurreko zutabearen esan nuen hemen ez dela korralleko lurrikararik izan, eta ez dira entzun horrelako kontuak. Ez legoke gaizki horrelako adierazpen bat, baina, hemen horretan ere desberdinak gara!

JOSEBA ASIRON (IRUÑEKO ALKATEA)

Josebari aipamen berezia egin nahi diot. Atentzioa eman dit gizon honen gizatasun eta etika jarrerak. Alkatetza hartu zuen egunean, bere hitzaldian ere esan zituen baina aurretik horrelako kode etikoa bat aldarrikatu zuen eta beste ideia askoren artean zera esan zuen: biktima guztien alde egingo zuela oroimena, justizia eta erreparazioa lor zezaten, eta giza eskubide guztiak defendatuko zituela eta biolentzia guztiak gaitzetsi. Bizikidetzarako bi dei nagusi, noski. Facebookean ikusi nuen eta zoriondu ere bai. Erantzuna jaso nuen. Inor gutxi aipatu ditu ideia horiek. Iruñeak bai izan du aldaketa eta Asiron bezalako gizon jatorrak behar ditugu. Zorionak ba, Aiurritik ere, Joseba!!! Bukatu da itun dantza. Jaitzi da teloa. Lanean hasi eta agindutakoa betetzeko ordua. Bizitzak aurrera darrai, eta izanen dugu denbora gai hauetaz aritzeko garaia eta parada. Zortea denei herrigintzan eta zintzotasuna jarretetan.

TOMAS: IN MEMORIAN

Urrietako Tomas, Tomasito ere joan da. Kintoak ginen eta kinto guztien izenean oroimenean iraun dezala opa diot. Urte asko bizi izan ditu eta bizitako hor dago. Agur Tomas: Adorik ez!!



KIROL ALBISTEAK

Pala motzeko finala, ostiral honetan



Iradi andoaindarra.

Iturzaeta memorialaren finala ostiral gauean jokatuko da Arrate pilotalekuan. Iradi andoaindarra eta Labiano dira partida guztiak irabaziz finalera iritsi diren bakarrak.

Final aurrekoak:

Iradi-Labiano 40
Altuna-Nicuesa 27
Sanz-Arruti 40
Ibarguren-Andonegi 29

Finalak:

Iradi-Labiano
Sanz-Arruti
Ekainak 19, ostirala.
22:00. Dohainik.

Ondoren, profesional mailako partidak:
Fusto-Ibai / Gaubeka-Imanol

Amonarriz hirugarren Eibarren



Sailkapena:

1. Unai Orbea	A. Sanz
2. Iñigo Altuna	Buruntzazpi
3. Ander Amonarriz	Andoaingo
12. Koldo Velasco	Andoaingo
27. Iñaki Gomez	Andoaingo
30. Jokin Alberdi	Andoaingo
34. Peio Manterola	Andoaingo

Ezohiko desafioa Arrate pilotalekuan



Jon Eskudero, Mateo Ponce, Elixane eta Alaine Jauregi partida hasi aurretik.



Ikusle ugari hurbildu zen ostegun arratsaldean deitu zuten desafiara.



Aritz Eskudero eta Andoni Alvarez laguntzaile lanetan aritu ziren.



Ikusmin handia sortu zen eta azkenean Eskudero uste baino errazago irabazi zuen.

Pilotazaleak erruz hurbildu ziren Arratera, baina uste zutena baino emozio gutxiago eduki zuen desafio xelebreak, Jon Eskudero eta Alaine eta Elixane Jauregi ahizpen artekoak. Teniseko pilotarekin, eskuz mutilak eta palaz neskek jokatze baldintza jarri zen, egin-dako apustuan. Bikotea, sei tantoko alde zuela hasi zen. 22-11koa izan zen azken emaitza.

Elixanek eta Alaineek ederki erabiltzen dute pala, badaukate teknika eta indarra baina ezaugarri horiek ez ziren nahikoak izan Eskudero aurre egiteko. Zakur zaharra da Eskudero esku pilotan, eta zer esanik ez txiki-txikitatik makina bat ordu sartu dituen Arraten, eta aurreneko tantotik antzeman zen hori.

Partidaren amaieran Elixanek aitortu zuen Eskuderoen de-

den beldur pixka batekin kan-txaratu zirela. "Esana ziguten gu atzera eta aurrera mugitzen saiatuko zela, eta kontuz ibiltzeko bere dejadekin. Eta halaxe izan da; ziztu bizian ateratzen ziren bere dejadak eta besteak ere, eta ezin altxa izan ditugu horiek". Eskudero ukatu egin zuen asko tesineko pilotarekin gogotik entrenatu denik: "Bost minutu baino ez ditut egin bera-

rekin. Gertatzen da eskuz takoe-ekin ibiltzen dena ohituta dagoela; eta gainera, frontoi honen distantziak hartuta dauzkate egunean ordu batzuk egiten ditudalako bertan; horrek asko egiten du. Partida hasieran, errespetua eragin dit beraiek zeukaten seiko abantaila, baina ondo ekin diot, tantoak segidan egin ditut, eta konfiantza eragin dit horrek".

Andoaingo lehen kiniela txapelketa

Giro bikaina sortu zen zesta puntako I. Kiniela Txapelketan. 16:00etan giroa berotzen hasi zen Gipuzkoako alebin eta infantil mailako topaketarekin. Arrate frontoira, Mutriku, Donostia, Zumaia, Hondarribi, Tolosa eta Andoaingo puntista gazteak gerturatu ziren eta kiniela saio eder batzuk eskaini zituzten. Denera 36 pilotari elkartu ziren, 24 alebin kategorian eta 12 infantil kategorian.

Pilotazaleak nagusien txapelketa ikusteko irrikitan zeuden. Euskal Herriko afizionatu onenek hartu zuten parte:

1. Barandika (Gernika), A. Alberro (Donostia).
2. Ibai (Berriatua), Arkaitz (Tolosa).



3. Aizpurua (Andoain), Suso (Gasteiz).
4. Antxon (Berriatua), Ubilla (Berriatua).
5. Jagoba (Donostia), Salegi (Markina).
6. U. Alberro (Donostia), Zabala (Markina).

Lehen kiniela Jagoba (Donostia) aurrelariak eta Salegi (Markina) atzelariak irabazi zuten eta bigarren kiniela Ibai (Berriatua) aurrelaria eta Arkaitz (Tolosa) atzelariak. Bi kiniela hauek oso parekatuak izan ziren, ikuskizun ederra

emanez. Finalean Salegi atzelariak segurtasun eta kokapen erakustaldi bikaina egin zuen. Jagoba aurrelariak aurrean tantoak amaitzeko maisutasuna erakutsi zuen. Ibai eta Arkaitz bikoteak partida ona jokatzen arren, ez zuten amore eman, baina azkenerako bigarren postuarekin konformatu behar.

Sari banaketan Patxi Jauregi Euskadiko Pilota Federazioko lehendakariak eta Igor Lizasoain Gazteleku elkarte ordez-kariak parte hartu zuten.

Zaletuak gustura atera ziren Andoaingo Arrate pilotalekutik, datorren urtean ere berriro horrelako ikuskizuna ikusteko gogoarekin geratu ziren.



KIROL ALBISTEAK

Leitzako jaitsiera



Canfranca, Jauregi, Adrian eta Arnaiz, parte hartzaileen artean.

Santa Krutz erretiratuen elkarteak aurreko igande goizean Leitzako jaitsiera antolatu zuen. Argazkian ikusten

denez, eguzkipean ibili ziren ibiltariak. Denek ere elkartearen hamaiketako goxoa dastatu zuten.

Buruntzaldea igeriketa taldearen deialdia



Buruntzaldea IKT taldeko kideak.

Postontzia

Buruntzaldea IKT-k 2015-2016 denboraldiarako izen-ematea zabaldu du. Zure haurrak igeriketa taldeko partaide izan nahi badu, oraintxe du aukera!

Izen-ematea 2015ko uztailaren 26ra arte egongo da zabalik. Izen-ematea gure web orriaren bidez egin behar da, "Izen Emateak" atalean "Andoain" sakatuta. (www.buruntzaldeaikt.blogspot.com) Bidi kodea eskaneatu dezakezu.

Datorren denboraldia irailaren 14ko astean hasiko da (batzuk astelehenean 14an eta beste batzuk asteartea 15ean, entrenamendu ordutegiaren arabere-



ra). Hauek dira jaiotze urtearen arabera izango dituzten ordutegiak.

- 2007an eta 2006an jaioak: asteartea eta osteguna, 17:00etatik 18:00etara.
- 2005ean jaioak: astelehena, asteazkena eta ostirala, 17:00etatik 18:00etara.
- 2004an jaioak eta 2003ko mutilak: astelehena, asteazkena eta ostirala 18:00etatik 19:15era.
- 2003 eta lehenagoko neskak eta 2002 eta lehenagoko mutilak: eskatu informazioa 696 506 632 telefonon (Borja).

Informazio gehiago nahi baduzu, deitu 696 506 632 telefonora (Borja) edo eskaneatu bidi kodea.

Trinketeko finalak kadete eta senior mailan

Hiru finaletan galdu zuten

KURENE 30-8 URNIETA
Imanol Odriozola, kadeteak.
Sopelako aurkaria faborito zen.

URNIETA 37-40 MUNDARRO
Julen Loitegi, senior maila.
32. tantora iritsi arte aurretik zen urnietarra, baina aurkaria hobeto iritsi zen amaiera aldera, hutsik egin gabe.

OBERENA 2-0 URNIETA
Julen Loitegi, senior maila.
Bikotekako finala galdu zuen.



Kadete eta senior mailako trinkete jokalaria, finalak jokatu eta gero.

UDA HONETAN
ZATOZ **ZEN** EGITERA
eta nuke, baleki, zenekien...

eman izena
Gipuzkoako euskaltegietan

Gipuzkoa **GIPUZKOAKO EUSKALTEGIAK**

Oharra: Biltzar argitaratzaileek ez dute beregain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien gaineko erantzukizunik.



Ekoizlea:



Laguntzaileak:



Aldizkari honek bi udalerrri hauen dirulaguntza jasotzen du:



Argitaratzailea:



Aiurri eskuragarri:

Etkez etxeko harpidetza-sistema. Andoainen urte osoko harpidetza-saria 35 eurokoa da. Urnietan, 30 euro. Ale batzuk eskuragarri kiosko eta merkatalguneetan.

Egoitza Orokorra:

Arantzibia plaza, 4/5-behea. 20140, Andoain. Tel.: 943 300 732. Faxa: 943 300 731. @: andoain@aiurri.com. **Webgunea:** www.aiurri.com

Zuzendaria:

Jon Ander Ubeda. andoain@aiurri.com. **Erredaktoreak:** Xabier Lasa, Izarne Olano, Joxeba Lizeaga eta Jon Unanue.

Diseinua:

Maddi Trutxuelo eta Jon Ander Ubeda. diseinua@aiurri.com. **Publizitatea:** Fernanda Irazu. publizitatea@aiurri.com

Zorion agurrak, merkatu txikia:

diseinua@aiurri.com. www.aiurri.com. **Lege Gordailua:** SS-1078/04. **ISSN:** 1698-4870. **Tirada:** 4.000 ale.

Kudeatzailea, banaketa arduraduna:

Garbiñe Ugartemendia. idazkaritza@aiurri.com. Tel.: 943 300 732

Banatzailleak:

Mikel Arregi (Andoain), Garazi Usandizaga (Urnietan). **Inprimategia:** Zeroa Multimedia. Huarte-Iruñea.

Agenda

EKAINAREN 19TIK AURRERA • AGENDAN IRAGARTZEKO: andoain@aiurri.com

Zinema

Andoain, Bastero

- “Ahora o nunca”. Larunbata, 27: 19:30, 22:00. Igandea, 28: 19:30. Astelehena, 29: 19:30, 22:00.

Urnietan, Sarobe

- “Pride”. Ekainak 26 eta 28.

Ikastaroak

Urnietan, Sarobe

- **Pilates**
Astearte eta ostegunak: 09:00-10:00. Astelehen-asteazkenak: 19:00-20:00 / 20:00-21:00.
- **Gimnasia hipopresiboa**
Astearte eta ostegunak: 11:00-11:30 11:45-12:15.
- **Gazte funky**
Astearte eta ostegunak: 10:00-11:00 11:00-12:00. Izen ematea: 943 00 80 42.

Erakusketa

Andoain, Urigain

- Udal ikastaroak: pintura, egur taila, eskulanak. Ekainaren 19tik 27ra.

Euskara

Andoain

- Ikasteko aukera udan, AEK-ren eskutik. Epea: Ekainak 19, ostirala.

Azokak

Andoain

- **Bigarren eskuko azoka.** Izena emateko epea zabalik, ekainaren 26ra arte. Informazioa: 943 591 298. Uztailak 4, larunbata.
- **Stock azoka.** Salkin elkarteak merkatariei dei egiten die uztailaren 18an egingo den azokan parte har dezaten. Informazioa: 637 955 030. itziarirurzun@hotmail.com

Aisialdia

Urnietan

- Udako lehen jarduerak: Ekainak 24 asteazkena: 19:00 Gaztegunea. Udabentura eta Gipuzkoa ezagutzen, gurasoeekin bilera. Ekainak 25 osteguna: 19:00 Gurasoeekin bilera. Ekainak 26 ostirala: Gazte forum gala, Oreretan.
- Uda Gaztelekuan, Udabentura, Gipuzkoako txokoak. Informazioa: Gaztelekua. San Juan 38, behea. 943 333 972.

Entseguak

Andoain

- **Axeri Dantzako** entseguak: Ondarretako jolastokian. Entseguak 20:00tan. Ekainak 22.

Kultur Astea

Urnietan

- Denda Berriren eskutik, mahai jokoekin hasi ziren. Datozen hitzorduak: Ekainak 19, ostirala: 18:30 Antzerki tailerraren eskutik: “Que viene, que viene...”. Ekainak 20, larunbata: 18:00 “Iribar”, dantzaldia. Ekainak 21, igandea: 08:00 Irteera Milagrosera, egun pasa. Ekainak 22, astelehena: 18:00 Sabeliztuna eta umorea “Elvi” eta bere panpinen eskutik. Ekainak 23, asteartea: 09:00 Ibilaldia Urnietatik Donostira. Bazkaria. 17:30-20:30 Dantzaldia.

Ekitaldia

Donostia

- Gure Esku Dago, “Gaur hautesontzia, bihar erabakia” lemapean. Informazioa 5. orrialdean. 17:30 Anoeta estadioa. Ekainak 21, larunbata.

Erakusketa

Urnietan, Lekaio

- XXII. Argazki rallya.
- Sari banaketa ekitaldia: 19:00. Lekaio. Ekainak 19, ostirala.

Antzerkia

Urnietan, Sarobe

- Pentagrama-Enea antzerki tailerrekoen jardunaldi irekiak, ikusleei irekia. 19:00 Sarobe. Ekainak 20, larunbata.

Sanjuanak

Andoain

- San Juan jaiak Andoainen ekainaren 19tik 24ra. Pregoia eta jaien hasierako txupinazoa, Ainhua Aieretzaren eskutik. 20:00 Goikoplaza. Ekainak 19, ostirala.
- Bertxin elkarteak jaietan hainbat jarduera osagarri antolatu ditu: Ekainak 22, astelehena: 17:00 Patata tortila lehiaketa. Ekainak 23, asteartea: 16:00 Tute txapelketa. Ekainak 24, asteazkena: 12:30 Hamaiketakoa.

Urnietan

- San Juan suaren inguruko festa, musika eta dantza saioekin. 21:00 Sorginen kalejira Buruntzatzen batukadarekin. 22:00 Sorgin Dantza eta Akelarrea Plazido Muxika plazan. 22:30 San Juan sua piztea eta erromeria Txanbolin Txistulari bandarekin. Ekainak 23, asteartea.


Odol-emaileak

Andoain

- 18:30-20:30. Osasun etxea. Uztailak 7, asteartea.

ZORION AGURRAK

ZORIONAK



Koldokekainaren 24an 7 urte. Orain arte bezelaxe sinpatiko eta alai segi. Muxuak. Etxekoak.

ANDOAIN


ZORIONAK



Iker Perez Valdemorosek 5 urte beteko ditu ekainaren 25ean. Muxu potoloak etxekoan partetik.

ANDOAIN


ZORIONAK



Amona Ixabelek ekainaren 18an urteakegi ten zituen. 3 muxu potolo Kimetz, Aratzeta Aranen partetik.

URNIETA

ZORIONAK



Aitor Niño Santinentzat ekainaren 16a oso egun berezia izan zen. 8 mila zorion, etxekoak.

URNIETA

MERKATU TXIKIA
12-14 urteko neska saharar baten-tzako bizikleta behar da udan. Libre

daukazu bat bi hilabetez? Deitu telefono honetara: 658-720-735. Mila esker.

EH Bilduk batzarra egin zuen Urnietan

Agintaldia hasita, datozen lau urteetako norabidea zehazteko eta beste zenbait

gaien inguruko erabakiak hartzeko bilera deitu zuen Urnietako EH Bilduk.

Ekialde txapelketa

Pilotak ez du etenik eta Ekialde txapelketako final aurrekoetan Andoaingo eta Urnietako pilotariak aurrez

aurre arituko dira Arrate pilotalekuan. **Gazteleku-Urnietan** Ekainak 19, ostirala. 19:15.

